**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.5. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, Karlos I.aren hiribideko TAO dela eta.**

"Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa Zerbitzu Orokorren Batzordean, hilabete honetan,

**II.2.5. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA relativa a la Ota de Carlos I.**

"Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo municipal Irabazi Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción de control para su debate en el Pleno, derivada

bideratutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Kexa asko aurkeztu dituzte Amara Berriko egoiliarrek Udalinforen eta beste bitarteko batzuen bidez, egoiliarrentzako aparkaleku gutxi daudela eta.

Alde horretatik, Karlos I.aren hiribideko zenbaki bakoitien aldea merkataritzako eremutzat sailkatuta dago, Trafikoko Ordezkaritzako bulegoak lekuz aspaldi aldatu bazituzten ere Era berean, Gizarte Segurantzaren bulegoak ere lekuz aldatu dituzte Loiolako Erriberetara, eta horren ondorioz jaitsi egin da merkataritzako aparkaleku premia; izan ere, gestioak direla eta, jende mugimendu handia eragiten zuten bi erakunde horiek.

Gai horri dagokionez, abenduan, galdera bat egin genion, idatziz, mugikortasuneko zinegotzi ordezkari Pilar Aranari eta hau erantzun zigun: “kontuan hartuta kale horretatik Trafiko ordezkaritza eta hor egin ohi diren izapideekin lotutako jarduerak desagertu egin direla, ulertzen dugu ez duela zentzu handirik merkataritzako TAO arauketari eustea. Ohiko arauketara (TAO mistoa) itzultzeak aukera emango lieke egoiliarrei laneko ordutegian aparkatzeko; beraz, aparkatzeko haien aukerak zabalduko lirateke”.

Batzordean, udal gobernuari galdetu genion ea, beste auzo batzuetarako TAO aldaketa izapidetzen ari denez, Karlos I.aren hiribideko zenbaki bakoitietako egoiliarren erreibindikazioak ere hor sartzekoak ziren, are gehiago, kontuan hartuta abenduan igorri ziguten erantzuna bat zetorrela erreibindikazio horiekin.

de interpelación en la Comisión de Servicios Generales del mes de marzo.

JUSTIFICACIÓN

Son numerosas las quejas que vienen haciendo las y los residentes de Amara Berri a través de Udal Info, y de otros canales, refiriéndose a la escasez de aparcamientos para residentes en el barrio.

En este sentido, en el lado de los números impares de Carlos I, la OTA está clasificada como zona comercial, a pesar de que las oficinas de la Delegación de Tráfico hace tiempo que se trasladaron. Asimismo, también se han trasladado las oficinas de la Seguridad Social a Riberas de Loiola, lo que supone un descenso de las necesidades de aparcamiento para uso comercial, puesto que eran dos organismos que generaban mucha afluencia de personas a realizar gestiones en esa zona.

A este respecto, en el mes de diciembre realizamos una pregunta por escrito a la concejal de movilidad, Sra. Arana, quien nos respondió que “teniendo en cuenta la desaparición de esa calle de la delegación de Tráfico y las actividades relacionadas que acarrean sus trámites, entendemos que no tiene mucho sentido mantener la regulación de OTA Comercial. El hecho de volver a una regulación normal (OTA Mixto), permitiría a los residentes aparcar en horario laboral, ampliando así sus posibilidades de aparcamiento”.

En la comisión, preguntamos al Gobierno municipal si, dado que se está tramitando una modificación de la OTA para otros barrios, se iban a incluir también las revindicaciones del vecindario del lado de los número impares de Carlos I, más aún teniendo en cuenta que la respuesta que se nos remitió en diciembre al respecto, coincidía con esa reivindicación.

Gure ustekabea Pilar Aranaren jarrera aldaketa izan zen, erantzun baitzigun ez dutela inongo aurreikuspenik kale alde horretako TAO arauketa aldatzeko, eta beraz, merkataritzakoa izaten jarraituko duela.

Horiek guztiak horrela, hau da nire

KONTROL MOZIOA

1.- Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio egin ditzala behar diren aldaketak aparkaldi arautuaren zerbitzua (TAO) arautzen duen udal ordenantzan, Karlos I.aren hiribideko zenbaki bakoitien aldea egoiliarrek aparkatzeko izateko.

Donostia, 2017ko martxoaren 24a

Izpta.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia taldearen bozeramailea".

Nuestra sorpresa fue el cambio de posición de la Sra. Arana, ya que nos respondió que no tienen ninguna previsión de cambiar la calificación de la OTA de ese lado de la calle, con lo que ésta seguirá siendo comercial.

Por este motivo presentamos la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, insta al Gobierno municipal a realizar las modificaciones oportunas en Ordenanza municipal reguladora del servicio de estacionamiento regulado (OTA), para que el lado de los números impares de Carlos I se destine al aparcamiento de residentes.

Donostia, a 24 de Marzo de 2017

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Axier Jaka Goikoetxea jaunak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señores/as Dª. Amaia Martín Garín, D. Axier Jaka Goikoetxea y Dª. Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK:10 –(5) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (7) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 10 – (5) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (7) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.6. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, Donostia –CO2 egitasmoa dela eta.**

“Irabazi Donostia taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordean, 2017/02/20an, aurkeztutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den urtarrilean, Foru Aldundiak garatutako Argitu egitasmoari buruzko mozio baten bidez, energia elektrikoaren kontsumoa murrizteko neurriak ezartzeak duen garrantzia nabarmendu genuen.

Zinegotzi ordezkariak adierazi zuen Udalean “Donostia -CO2” egitasmoa zegoela.

Atxiki diren etxeei hau proposatzen die egitasmoak:
1. kontagailu adimendun bat elektrizitate kontsumoaren segimendu zorrotza egiteko
2. ur, elektrizitate eta berokuntza gastua murrizteko aholkuak
3. metodologia bat energia kontsumoa eta kontsumoaren murrizketa ebaluatzeko

Otsaileko batzordean egitasmo horri buruz galdera egin ondoren, donostiarren partaidetzari buruzko datuak eman zituen. 2010az geroztik abian den egitasmo horretan, 25 etxek parte hartu dute, guztira (19 izan dira Alde Zaharrean, 15, Altzan, eta jabekideen elkarte bat, hori ere, Altzan). Egitasmoan parte hartzen duten etxe kopuru eskasarengatik harrituta, planteatu genuen egitasmoaren berri

**II.2.6. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre el programa hogares con menos CO2.**

“Loïc Alejandro, Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL PARA SU DEBATE EN EL PLENO, fruto de la interpelación relativa al programa hogares menos co2, en la Comisión de Desarrollo y Planificación del territorio del 20/03/2017.

JUSTIFICACIÓN

El pasado mes de enero, fruto de una moción relativa al programa Argitu desarrollado por la Diputación, señalamos la importancia de implementar medidas relativas a reducir el consumo de energía eléctrica.

El concejal delegado señaló que en el Ayuntamiento había un programa “Hogares menos CO2”.

Ese programa propone a los hogares adheridos:
1. un contador inteligente para hacer un seguimiento fino del consumo eléctrico
2. consejos para reducir el gasto en agua, electricidad y calefacción
3. una metodología para poder evaluar el consumo de energía y su reducción

Preguntado por el mismo en la comisión del pasado mes de febrero, facilitó datos relativos a la participación de la ciudadanía donostiarra en el mismo. El programa puesto en marcha desde 2010 contaba con la participación de un total de 25 hogares (19 en Parte Vieja, 5 en Altza y una comunidad de vecinos también en el barrio de Altza). Sorprendidos por el escaso número de hogares que participan en tal

modu egokiago batean eman behar zela, are gehiago, jakinda, parte hartzen ari ziren etxeen energia aurrezpena % 15 inguru zela.

programa, planteábamos la necesidad de una mejor comunicación del programa, más si cabe sabiendo de los ahorros energéticos que suponían para los hogares que participaban en el mismo, de en torno a un 15%.

Hil honetako batzordean, non gaia berriro aztertu baitugu ikusita atxikitako etxeen kopuru txikia, gobernuari planteatzen genion egitasmoa hedatzen inplikazio handiagoa behar zela, aurrezpenei buruzko datuak esanguratsuak ziren eta. Harrigarria dirudi ezen, edozein herritar atxiki daitekeela jakinda, egitasmoak arrakastarik apenas izatea. Gure taldetik, proposatzen dugu gobernuak egitasmoaren existentziaren berri eman behar duela komunikazio kanpainaren baten bidez.

En la comisión de este mes donde hemos vuelto a tratar el tema a la vista del escaso número de hogares adheridos, planteábamos al gobierno la necesidad de una mayor implicación en la difusión de este programa, ya que los datos de los ahorros resultaban significativos. Parece sorprendente que sabiendo que cualquier ciudadano/a puede adherirse a tal programa apenas tenga éxito. Desde nuestro grupo, planteamos la necesidad de que el gobierno informe mediante algún tipo de campaña de comunicación la existencia de tal programa.

Funtsezkoa iruditzen zaigu, halaber, gobernuak, energia gastua txikiagotzea ahalbidetzen duen egitasmo hau hor dela aprobetxatuz, proposatzea baliabide gutxien dituzten etxeak, gizarte larrialdi laguntzen babesa jasotzen dutenak, Donostia -CO2 egitasmora atxikitzeko aukera.

Igualmente, consideramos fundamental que el gobierno, aprovechando la existencia de este programa que permite ahorrar gastos en energía, plantee la posibilidad de incorporar a los hogares con menores recursos, aquéllos a los que viene apoyando mediante las ayudas de emergencia social (AES), al programa de Hogares menos CO2.

Gogorarazi nahi dugu gizarte larrialdiko laguntzen zati handi bat argia eta gasa ordaintzera bideratzen direla. Zehazki, Gizarte Ekintzako 2015eko memoriaren arabera, hurrenkeran bigarren tokian den kontzeptu horretara, guztira, 750.117,77 euro bideratu ziren, hau da, emandako laguntza guztien % 32.

Queremos recordar que una parte muy importante de las Ayudas de Emergencia Social se destinan al pago de los recibos de luz y gas. En concreto, según la memoria del Departamento de Acción Social de 2015, es el segundo concepto al que se destinaron esas ayudas, en total 750.117,77 euros, un 32% del total de ayudas concedidas.

Horregatik, beharrezkoa da Gizarte Ekintzako eta Ingurumen Zuzendaritzen arteko koordinazioa areagotzea, ikusteko energia aurrezteko zer neurri ezar daitezkeen premia handienak dituzten etxe horietan.

Por ello, es preciso que aumente la coordinación entre el departamento de Acción Social y el de Medio Ambiente, para ver qué tipo de medidas de ahorro energético se pueden implantar en aquellos hogares que más necesidades tienen.

Ezinbestekoa da udal gobernuak energia kontsumoa oro har murrizteko neurriak garatzea, bi arrazoi hauengatik: bat, diru asko aurreztuko litzateke GLLtan, eta bi, agerikoak diren ingurumeneko arrazoiak.

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio gara dezala komunikazio kanpaina bat energia gastuaren fakturetan batez beste % 15 aurreztea ahalbidetzen duen Donostia -CO2 egitasmoaren berri emateko donostiarrei.

2. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio proposa diezaiela, banan-banan, Gizarte Ekintza eta Ingurumeneko Zuzendaritzekin elkarlanean, gizarte larrialdiko laguntzak jasotzen dituzten etxe guztiei Donostia –CO2 egitasmora atxikitzea.

Donostia, 2017ko martxoaren 24a

Izpta.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia".

Es imprescindible que el Gobierno municipal desarrolle medidas para la reducción del consumo de energía en general por un doble motivo: uno, se ahorraría mucho dinero en AES, y dos, por evidentes razones medio ambientales.

Por este motivo, presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a desarrollar una campaña de comunicación entre la ciudadanía donostiarra al objeto de informar de la existencia de Hogares menos CO2 gracias a la que es posible ahorrar una media de un 15% en la factura de gastos de energía.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que, en colaboración con los departamentos de Medio Ambiente y Acción Social, planteen la adhesión al programa de Hogares menos CO2 de forma personalizada a todos los hogares que reciban ayudas de emergencia social (AES).

Donostia a 24 de marzo de 2017

Fdo. Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Axier Jaka Goikoetxea jaunak, Alfonso Gurpegui Ruiz jaunak eta Aitziber San Roman Abete andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Loïc Alejandro, D. Axier Jaka Goikoetxea, D. Alfonso Gurpegui Ruiz y Dª. Aitziber San Román Abete, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**6. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 6:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**6. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 6:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.7. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, Pio XII.aren plazako nasak direla eta.**

“Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa hil honetako Batzordean bideratutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Aspaldidanik eskatzen ari gatzaizkio gobernu honi, ekimen desberdinen bidez, jarduerak

**II.2.7. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre dársenas Pio XII.**

“Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL consecuencia de la interpelación en la Comisión de  del presente mes.

JUSTIFICACIÓN

Hace tiempo que a través de diferentes iniciativas se le viene reclamando a este

egin ditzan Pio XII.aren plazako nasetan. Izan ere, autobus geltoki berria zabaldu zenetik, inguru hori erabilerarik gabe gelditu da, eta irudi ez oso erakargarria ematen du merkataritza sustatzeko premia duen inguru batean.

Urtebete igaro da ia autobus geltoki berria ireki zenetik eta inguruak irtenbiderik eman gabe jarraitzen du. Horrez gain, hainbat konpainiek autobusak aparkatzen jarraitzen dute, eta bizilagunei eragozpenak eragiten dizkiete zarataren ondorioz. Gure taldeak interpelazioa egitean, zinegotzi ordezkariak erantzun zuen hala zela, eremua aldi baterako gordeta zegoela autobusak han aparkatzen jarraitzeko. Eremu horri etorkizunean zer erabilera eman aztertzen ari zirela ere jakinarazi zigun.

Urtebete igaro ondoren, iruditzen zaigu badela garaia egoera zuzentzeko eta mahaigainean proiektu zehatzak jartzeko.

Horiek horrela, hau da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Udal gobernuari eskatzen dio aurkez dezala proiektu bat autobus geltokia zenaren eremuaren eraldaketari heltzeko.

Donostia, 2017ko martxoaren 24a

Izpta.: Amaia Martin Garin
Irabazi Donostia taldearen bozeramailea".

gobierno que lleve a cabo actuaciones en el entorno de las dársenas de Pio XII, puesto que al abrirse la nueva Estación de autobuses, este entorno ha quedado en desuso mayormente, dando una imagen poco atractiva de una zona que necesita de un impulso comercial.

Ha pasado un año ya desde que se inauguró la nueva estación de buses y la zona sigue sin una solución. Por otra parte siguen aparcando autobuses de diferentes compañías con las consiguientes molestias para los vecinos de la zona por el ruido. Al ser interpelada por nuestro grupo, la concejala delegado respondió que efectivamente, se había reservado la zona por un tiempo para que autobuses pudieran seguir aparcando allí. También informó de que se estaba estudiando el futuro uso a dar a la zona.

Creemos que después de un año, ya va siendo hora de que la zona abandone esta situación y de que se pongan proyectos concretos sobre la mesa.

Es por ello que presentamos la siguiente

MOCION DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a presentar un proyecto que aborde la transformación de la zona de la antigua estación de buses.

Donostia a 24 de Marzo de 2017

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Axier Jaka Goikoetxea jaunak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as Dª. Amaia Martín Garín, D. José María Murguiondo Casal, D. Axier Jaka Goikoetxea y Dª. Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK:10 –(5) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 10 – (5) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.8. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, Altzako kiroldegia eta amiantoa dela eta.**

“Irabazi Donostia taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordean, 2017/03/20an, amiantoa aurkitu den lursailetan hartu beharreko neurriei buruz, aurkeztutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Altza kiroldegian egitekoak diren obren esparruan, hiru eremu hauetako lurrak aztertu dituzte amiantoaren eta beste gai kutsatzaile batzuen presentzia bilatzeko:

- 1. eremua: lehengo kiroldegiak hartzen

**II.2.8. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA relativa al Polideportivo y el amianto en Altza.**

“Loïc Alejandro, Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL PARA SU DEBATE EN EL PLENO, fruto de la interpelación sobre las medidas a adoptar en las parcelas donde se ha encontrado amianto, en la Comisión de Desarrollo y Planificación del territorio del 20/03/2017.

JUSTIFICACIÓN

En el marco de las obras del nuevo polideportivo de Alza se han analizado 3 superficies para buscar la eventual presencia de amianto y otros contaminantes en los suelos:

- superficie 1 ocupada por el antiguo

zuena.

- 2. eremua: kirol instalazioak zabaltzeko aurreikusitakoa; aparkalekua eta parke publikoa hartzen ditu.
- 3. eremua: Fibrocementos Vascos SL enpresaren hondakindegi industriala zena; Harri Berri - Oleta lehen hezkuntzako ikastetxearen ekialdean.

1. eremuari dagokionez, amianto hondarrik ez dagoela ondorioztatu da.

2. eremuari dagokionez, azterlan xehearen emaitzek adierazten dute amiantoa dagoela, arriskugarriak izateko moduko kontzentrazioetan. Hona emaitzak:

- “Asbesto arrastoak % 0,1 – 2 kontzentrazioan lagin bolumenean”
- Lagina hartzeko gutxieneko sakonera 20-70 cm izan da.

3. eremuari dagokionez, txostenaren emaitzek adierazten dute amiantoa dagoela, 2. eremuan baino kontzentrazio handiagotan, eta gainazalean, zenbait puntutan, zuzenean aire librean. Zehazki:

- “Asbestoen presentzia mugatu da % 2-5 kontzentrazioan”
- “Ikastetxearen patioa inguratzen duen hesiarekiko paraleloan doan bidexkaren ondoan den ezpondaren gainazalean asbestoak eduki ditzaketen materialak daudela ikusi da”.

Txosten desberdin horietan prebentzioko zenbait jarduera gomendatzen dira:

- Barrera fisiko bat jartzea amiantoa

polideportivo.

- Superficie 2 del parking y del parque público donde está prevista la ampliación de las instalaciones deportivas.
- Superficie 3 del antiguo vertedero industrial de Fibrocementos Vascos, S.L. que se sitúa al Este del centro de enseñanza primaria CEP Harri Berri - Oleta LHI.

En cuanto a la superficie 1 se ha concluido que no había restos de amianto.

En cuanto a la superficie 2, los resultados de la investigación detallada indican la presencia de amianto en concentraciones suficientes para representar un peligro:

- “Presencia de asbestos en concentración de 0.1 – 2 % en volumen de muestra”.
- profundidad mínima de toma de muestra de 20-70cm.

En cuanto a la superficie 3, la conclusiones del informe indican la presencia de amianto en concentraciones superiores a la superficie 2 y en superficie, en algunos puntos directamente al aire libre:

- “Se ha determinado la presencia de asbestos con una concentración del 2-5 %”
- Se “ha observado la presencia de materiales que pueden contener asbestos en la superficie del talud presente junto al sendero que discurre paralelamente al vallado perimetral del patio del colegio”.

Los distintos informes recomiendan varias actuaciones preventivas:

- Barrera física sobre las superficies no

aurkitu den gainazal asfaltatu gabeen gainean (2 eta 3 eremuak).

- Airearen analisi gehiago egitea.
- Ikerketa xehea egitea ikastetxearekin muga egiten duen eremuan.

Egia bada ere airearen azterketek bazter uzten dutela amianto esposizio jarraitua, txostenek proposatutako neurriak modu prebentiboan hartu behar dira. Batez ere, ikastetxeko patioaren eta fibrozementu enpresaren hondakindegia zenaren artean doan bidexkaren egoera delikatuaren berri izanda, amiantoa aurkitu baita han, gainazalean eta kontzentrazio handitan.

Batzordean, zinegotzi ordezkariak esan zuen proposatutako neurriak abian jarriko zirela eta jada konponduta zegoela bi tokitan zabalik zegoen hesia. Berri ona da OSALANEk, azkenean, bere oniritzia eman izana, behar diren jarduerak egiteko. Nolanahi ere, iruditzen zaigu hesi hori hobeto jar daitekeela, eta jarri egin behar dela.

2017ko martxoaren 22an, Altzan, Asmatu herritarren plataformak antolatutako informazio bileran, fibrozementu enpresaren hondakindegia zenaren ondoan hasitako herritar batzuek komentatu zuten lehen “mendia” esaten zioten hondakin piloa jarrita dagoen hesitik harago zabaltzen dela, eta Pasaiaraino jaisten dela. Gogorarazi behar da kutsatutzat identifikatutako lursail horren hegoaldera baratzeak daudela. Ikerketa historiko batean eta 3. eremuko hesia mugatzeko lerro topografikoetan oinarrituta dago, baina, bertako bizilagunen lekukotasunen argitan, ezinbestekoa da gehiago ikertzea, segurtasunez eta zehaztasunez mugatzeko amiantoak eragindako ikastetxearen ekialdeko eremua. Modu berean, inguruan baratzeak egoteak

asfaltadas donde se ha encontrado amianto (superficies 2 & 3)

- Más análisis de aire
- Investigación detallada en la superficie limítrofe con el centro de enseñanza

Si es cierto que los análisis del aire descartan una exposición continua al amianto, las medidas propuestas por los informes deben realizarse de forma preventiva. Sobre todo conociendo la situación delicada del sendero que transcurre entre el patio del centro de enseñanza y el antiguo vertedero de la empresa de fibrocemento, donde se ha encontrado amianto en superficie y en concentraciones altas.

En comisión, el Concejal Delegado indicó que se iban a poner en marcha esas medidas propuestas, y que ya se había arreglado el vallado que estaba abierto en dos sitios. Es una buena noticia que por fin OSALAN haya dado su visto bueno para la realización de las actuaciones necesarias. No obstante, nos parece que este vallado puede y debe mejorarse todavía más.

En la reunión informativa organizada el 22 de marzo 2017 por la plataforma ciudadana Asmatu en Altza, varios ciudadanos que habían crecido cerca del antiguo vertedero de la empresa de fibrocemento, comentaron que la extensión del vertido, que llamaban entonces “la montaña”, va más allá del vallado colocado y baja hasta Pasaia. Es necesario recordar que al sur de esta parcela identificada como contaminada, hay huertas. Se ha basado en una investigación histórica y en las lineas topográficas para delimitar el vallado de la superficie 3, pero a la luz de los testimonios de los vecinos, es imprescindible investigar más para delimitar con seguridad y precisión la zona afectada por amianto al este del centro de enseñanza. Del mismo modo, la presencia de huertas en la zona provoca preocupación

kezka sortzen du; izan ere, lurrean amiantoa dagoela, baratzean aritzea arriskutsua izan daiteke, eta arriskua ebaluatu eta mugatu beharra dago.

ya que con el amianto en el suelo, las actividades de que se realizan en ellas pueden suponer un peligro que es necesario evaluar y acatar.

Kontrol mozio honen jatorrian den interpelazioa idatzi genuenena, 3. eremuko hesia zabalik zegoen bi puntutan. Batzordean, zabalgune horietatik eremura sartzen segitzen duten pertsonen jarrera arduragabea azpimarratu zuen zinegotzi ordezkariak. Uste dugu, besterik gabe, bizilagunek ez dakitela zehazki zer gertatzen ari den hesitutako eremuan, eta hesiaren soiltasunak ere ez du laguntzen gune arriskutsua dela ulertzen. Horregatik, beharrezkoa da bizilagunak hobeto informatzea. Martxoaren 22ko informazio bileran argi eta garbi planteatu zen eskaera hori, baina, horrez gain, baiezko erantzuna eman zioten udal gobernuaren arduradunek.

Cuando redactamos la interpelación origen de esta moción de control, el vallado de la superficie 3 estaba abierto en dos puntos. En comisión, el Concejal Delegado resaltó la actitud irresponsable de las personas que seguían accediendo a la zona por las aperturas. Creemos que el vecindario simplemente no sabe con exactitud qué está pasando en la zona vallada, y la sencillez del vallado tampoco deja entender que es una zona peligrosa. Por ese motivo, es necesario intensificar la información al vecindario. Es una petición que, además, fue claramente formulada en la mencionada reunión informativa del 22 de marzo, y a la cual los responsables del Gobierno contestaron positivamente.

Bilera berean, Herritarren Partaidetza sailaren arduradunak adierazi zuen txosten guztiak kontsultatzeko moduan daudela Casares Tomasene kultur etxean. Ekimen positiboa eta beharrezkoa, baina, seguru asko, ez nahikoa, txosten teknikoak izanda jende guztia ez delako ulertzera iritsiko. Bileran emandako azalpenak entzun izan ezin dituzten herritarretako askok, ez du denborarik izango, ezta ere, txosten oso teknikoak irakurtzeko. Horregatik, beharrezkoa iruditzen zaigu eskuorriak egitea egoerari buruzko azalpen erraz eta laburrekin. Proposatu nahi dugu eskuorri horiek gutxienez auzoko kultur etxean eskuragarri egotea.

En esa misma reunión, la responsable del Departamento de Participación Ciudadana comentó que todos los informes están disponibles para su consulta en la casa de cultura Casares Tomasene. Una iniciativa positiva y necesaria, pero probablemente no suficiente, puesto que se trata de informes técnicos que no todas las personas pueden llegar a comprender. Muchas ciudadanas y ciudadanos que no han podido escuchar las explicaciones dadas en la reunión, tampoco tendrán tiempo para leerse informes muy técnicos. Por esa razón, creemos necesario que se realicen folletos explicativos sencillos y breves que den cuenta la situación. Queremos proponer, como mínimo, que esos folletos estén disponibles en la casa de cultura del barrio.

Beste alde batetik, amiantoaren arazoaren ondorioz, kiroldegi berriaren amaiera atzeratu egingo da, eta hori gabe ere, eraikuntza lanak

Por otra parte, los problemas surgidos por la presencia del amianto retrasan la realización del nuevo polideportivo para el cual, sin contar

bi urtez luzatuko zirela aurreikusten zen jada. Auzotar asko kaltetuta sentitzen da, eta konpentsazio neurriak eta aldi baterakoak proposatu dituzte. Horietako batzuk ontzat eman zituzten jada gobernuak eta, pertsonalki, alkateak informazio bileran. Hauek, hain zuzen:

- lokalak erabiltzea auzoan lehen kiroldegian egiten ziren jardueretako batzuk egiteko.
- kiroldegi berria prest egotean, ez kobratzea kirol txartelaren sarrera kuota baja eman duten erabiltzaileei.

Amaitzeko, nabarmendu nahi dugu ez dela informazio guztia eraman Altza kiroldegiari eta amiantoz kutsatutako lurren presentziari buruzko Batzorde Ez Iraunkorrera. 3. eremuari dagokionez, amiantoa gainazaletik hurbilago dagoela besterik ez da esan batzorde horretan. Ez da okerra, baina ez da "informazio guztia jakinaraztea", aurkitu diren kontzentrazioak handienak direla ez delako adierazi, eta materiala zuzenean aire librean dagoela ere ez delako adierazi. Batzordekideei ere ez zaizkie txostenak helarazi. Beste dinamika bat hartu behar dugu.

Horiek guztiak horrela, hau da nire

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio jar ditzala lehenbailehen, eta bizilagunen eta fibrozementu enpresaren hondakindegia zenarekin muga egiten duen ikastetxearen eskaerak aintzat hartuta, amiantoz kutsatutako Altzako lurrei dagokienez Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordean iragarritako eta egin

con los retrasos, ya se preveían 2 años de obras. Muchas vecinas y vecinos se ven perjudicadas y proponen medidas compensatorias y transitorias. Algunas de las cuales ya valoradas positivamente por Gobierno y el Alcalde personalmente en la reunión informativa, como:

- el uso de locales en el barrio para realizar algunas de las actividades que se hacían en el polideportivo.
- cuando esté listo el nuevo polideportivo, no cobrar la cuota de entrada de la Kirol Txartela a los y las usuarias que se han dado de baja.

Para terminar, queremos resaltar el hecho de que no se ha trasladado toda la información a la Comisión No Permanente sobre el polideportivo de Altza y la presencia de suelos contaminados por amianto. Sobre la superficie 3, en esa comisión, se ha dicho simplemente que el amianto se encuentra más cerca de la superficie. No es inexacto, pero no es "trasladar toda la información" porque no se ha comentado que las concentraciones encontradas son las más altas, y tampoco se ha comentado que se encuentra material directamente al aire libre. Tampoco se han trasladado los informes a los miembros de la comisión. Debemos adoptar otra dinámica.

Por todos estos motivos presentamos la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, insta al Gobierno municipal a que ponga en marcha a la mayor brevedad posible, y atendiendo a las peticiones del vecindario y del colegio limítrofe con el antiguo vertedero de la empresa de fibrocemento, las medidas anunciadas en la comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio y

diren txosten desberdinetan proposatutako neurri hauek:

- Barrera fisiko bat jartzea gainazal asfaltatu gabeen gainean
- Airearen analisi gehiago egitea
- Ikerketa xehea egitea ikastetxearekin muga egiten duen eremuan

2. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio hobekuntzak egin ditzala amiantoa aurkitu den lursailetako itxituran. Hauek, zehazki:

- itxituran jarrita dauden kartelak aldatzea, hesitutako eremuan amiantoa dagoela ohartarazteko moduan.

- egungo itxituraren ordez seguruago bat jartzea.
- zaintza lanak areagotzea, jendea pasatzea galarazteko.

3. Harri Berri - Oleta lehen hezkuntzako ikastetxearen ekialdean den amiantoz kutsatutako eremua, auzotarren lekukotasunak aintzat hartuta, uste baino handiagoa ote den eta, Donostiako Udalbatzak gobernuari eskatzen dio egin ditzala lagin hartze gehiago amiantoz kutsatu gabeko laginen lerro jarraitu bat lortu arte egun hesitutako eremuaren inguru osoan.

4. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio azter dezala zer neurritan eragiten dien amiantoak fibrozementu enpresaren hondakindegia zenaren lursailarekin muga egiten duten baratzei eta zer arrisku potentziala dakarren.

5. Donostiako Udalbatzak gobernuari eskatzen

propuestas por los distintos informes realizados en relación con los suelos contaminados por amianto en Altza:

- Barrera física sobre las superficies no asfaltadas
- Más análisis de aire
- Investigación detallada en la superficie limítrofe con el centro de enseñanza

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, insta al Gobierno municipal a mejorar el vallado de las parcelas donde se ha encontrado amianto, en concreto:

- modificar los carteles colocados en el vallado de manera que alerten sobre la presencia de amianto en el espacio vallado.
- mejorar el vallado actual por otro más seguro
- intensificar las labores de vigilancia para impedir el paso

3. A la luz de los testimonios del vecindario sobre la posible importante extensión de la zona contaminada por amianto al este del centro de enseñanza primaria CEP Harri Berri - Oleta LHI, el Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno a realizar más tomas de muestras de suelo hasta conseguir una linea continua de muestras sin contaminación de amianto circunscribiendo la superficie actualmente vallada.

4. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, insta al Gobierno municipal a analizar en qué medida las huertas limítrofes con la parcela del antiguo vertedero de la empresa de fibrocemento, se ven afectadas por el amianto y qué peligro potencial representa.

5. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia /

dio zehatz ditzala, Asmatu herritarren plataformarekin batera, aurrez aurreko eta aldian aldiko bilera batzuk informazioa emateko auzotarrei Altzako amiantoari dagokionez egiten ari diren jarduerei eta Udalak eskuartean darabiltzan informazioei buruz.

6. Donostiako Udalbatzak gobernuari eskatzen dio prestatu dezala eskuorri labur eta argi bat amiantoa detektatu den Altzako hiru lursailen egoera azaltzeko, eta jar dezala eskuragarri gutxienez auzoko kultur etxean.

7. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio abiaraz ditzala konpentsaziozko eta aldi baterako neurriak kiroldegiaren desagertzeak auzotarrei eragindako kaltea arintzeko, haiek eskatutakoarekin bat.

8. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio helaraz diezaiola Altza kiroldegiari eta amiantoz kutsatutako lurren presentziari buruzko Batzorde Ez Iraunkorrari eskuartean duen informazio guztia egun egiten ari diren jarduerei, eta aurreikusitakoei, buruz, eta gaiarekin lotuta egin ahal diren azterlan eta txostenei buruz.

Donostia, 2017ko martxoaren 24a

Izpta.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia".

San Sebastián, insta al Gobierno a definir con la plataforma ciudadana Asmatu la realización de reuniones presenciales y periódicas, para informar al vecindario sobre las actuaciones que se realizan y las informaciones que el Ayuntamiento maneja en relación al amianto en Altza.

6. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno a realizar un folleto explicativo breve y claro de la situación de las tres parcelas en las que se ha detectado amianto en Altza, y, como mínimo, a que estén disponibles en la casa de cultura del barrio.

7. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a poner en marcha medidas transitorias y compensatorias destinadas a reducir la afección que la desaparición del polideportivo representa para el vecindario, de acuerdo con las reivindicaciones del mismo.

8. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, insta al Gobierno municipal a trasladar a la Comisión No Permanente sobre el polideportivo de Altza y la presencia de suelos contaminados por amianto, toda la información de que disponga sobre las actuaciones que se están llevando a cabo en la actualidad, así como de las previstas, y de los estudios e informes que se elaboren al respecto.

Donostia, a 24 de Marzo de 2017

Fdo.: Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Enrique Ramos Vispo jaunak, Alkate-Udalburuak eta Jose Maria Murguiondo Casal jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Loïc Alejandro, D. Ricardo Burutarán Ferré, D. Enrique Ramos Vispo, Alcalde-Presidente y D. José María Murguiondo Casal, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**8. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 8:**

| | |
|---|---|
| **BOZKETAREN EMAITZA:**<br>**ONARTUA.**<br>**AHO BATEZ.** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**<br>**APROBADA.**<br>**UNANIMIDAD.** |

**8. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 8:**

| | |
|---|---|
| **BOZKETAREN EMAITZA:**<br>**BAZTERTUA.**<br>**GEHIENGOA.**<br>**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**<br>**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**<br>**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**<br>**RECHAZADA.**<br>**MAYORÍA.**<br>**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**<br>**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**<br>**ABSTENCIONES: 3 – PP.** |

**8. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 8:**

| | |
|---|---|
| **BOZKETAREN EMAITZA:**<br>**ONARTUA.**<br>**AHO BATEZ.** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**<br>**APROBADA.**<br>**UNANIMIDAD.** |

**8. KONTROL MOZIOAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 8:**

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
AHO BATEZ.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.
UNANIMIDAD.

8. KONTROL MOZIOAREN 5. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 5 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 8:

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENTZIOAK: 0.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENCIONES: 0.

8. KONTROL MOZIOAREN 6. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 6 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 8:

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 23 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 0.
ABSTENTZIOAK: 3 – PP.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 23 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 0.
ABSTENCIONES: 3 – PP.

8. KONTROL MOZIOAREN 7. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 7 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 8:

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
AHO BATEZ.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.
UNANIMIDAD.

8. KONTROL MOZIOAREN 8. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 8 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 8:

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.9. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, merkatu erreserba dela eta.**

“Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa hil honetako Batzordean bideratutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Udal kontratuetan gizarte, ingurumen, etika, lan, hizkuntz eta berdintasun irizpideak txertatzeko jarraibidean, atal bat dago irizpide horiek kontratua prestatzeko fasean sartzeari buruz. Hortxe jasotzen du jarraibideak enplegu zentro berezientzat eta gizarteratzeko enpresentzat merkatu erreserba egiteari buruzko atala.

Aipatutako zentro eta enpresa horientzat gordeko den urteko zenbatekoa edo ehunekoa urtero finkatzen du Gobernu Batzarrak osotasunean eta sektoreka, aipatutako jarraibidean jasotakoaren arabera.

Lehengo otsailean, batzordean, Ogasuneko zinegotzi ordezkariak adierazi zuen asmoa zutela gutxieneko ehuneko bat finkatzeko gizarteratzeko enpresa eta enplegu zentro bereziekiko kontratuetarako. Hala ere, gaur

**II.2.9. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre reserva de mercado.**

“Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL consecuencia de la interpelación en la Comisión de   del presente mes.

JUSTIFICACIÓN

En la instrucción para la incorporación de criterios sociales, ambientales, éticos, laborales, lingüísticos y de igualdad en la contratación pública del Ayuntamiento, hay un apartado relativo a la inclusión de estos criterios relativo a la fase de preparación del contrato. Es aquí donde la instrucción recoge un apartado relativo a la reserva de mercado para centros especiales de empleo y empresas de inserción social.

La cuantía anual o el porcentaje reservado para los centros y empresas señalados respecto al total presupuestario se fija anualmente por la Junta de Gobierno Local de forma global y de manera sectorial, según lo recogido en la instrucción señalada.

El pasado mes de febrero en comisión, el concejal delegado de Hacienda, señaló que tenían intención de marcarse un porcentaje mínimo para los contratos con empresas de inserción social y centros especiales de

egun ez da finkatzen, eta horrexegatik egin genion horri buruzko interpelazioa zinegotzi ordezkariari hil honetako Ogasuneko Batzordean. Erantzun ziguten udal gobernuak ez duela jarraibideen bidez gutxieneko ehunekoak finkatzeko aurreikuspenik,eta konparazioan, askoz hobeto kokatuta gaudela, alde horretatik, beste herri batzuk baino.

Beste udalerri batzuetan, ordea, merkatu erreserben gutxieneko ehunekoak finkatzen ari dira beren jarraibideen bidez; esate baterako, Gasteizen, non % 3 jarri baitute kontratazio osoaren gaineko gutxieneko gisa.

Hortaz, eta betiere kontuan hartuta, gutxieneko batzuk ezartzeko orduan, aitzat hartu behar direla udalerri bakoitzean jardun dezaketen enpresen ezaugarriak, eta irizten diogula aurreko agintalditik kontratazio arduratsuaren inguruan bideratzen ari diren jarduerak sendotzeari begira, beharrezkoa dela jarraibidean gutxieneko ehunekoa finkatzea, hau da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak gobernuari eskatzen dio finka dezala Donostiako Udalaren kontratuetan gizarte, ingurumen, etika, lan, hizkuntz eta berdintasun irizpideak txertatzeko jarraibidean, enplegu zentro berezientzat gordeko den kontratazioaren gutxieneko ehunekoa.

Donostia, 2017ko martxoaren 24a

Izpta.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia taldearen bozeramailea".

empleo. Sin embargo, actualmente no se da y es por este motivo que interpelamos en la comisión de Hacienda de este mes al concejal delegado al respecto. Se nos respondió que el gobierno municipal no prevé establecer porcentajes mínimos a través de la instrucción y que comparativamente, estamos mucho mejor situados en ese aspecto que otras localidades.

Sin embargo, existen otros municipios en los que se está estableciendo un porcentaje mínimo de reserva de mercado a través de sus instrucciones, caso de Vitoria Gasteiz, que establece un mínimo sobre la contratación global de un 3%.

Por lo tanto, y siempre teniendo en cuenta que a la hora de establecer unos mínimos hay que tener en cuenta las diferentes características de las empresas que pueden operar en cada municipio, y consideramos que de cara a consolidar las actuaciones que se vienen dando desde la pasada legislatura en torno a la contratación responsable que hace falta fijar un porcentaje mínimo en la instrucción.

MOCION DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno a introducir en la instrucción para la incorporación de criterios sociales, ambientales, éticos, laborales, lingüísticos y de igualdad en la contratación del Ayuntamiento de Donostia/ San Sebastián un porcentaje mínimo de contratación reservado a centros especiales de empleo.

Donostia a 24 de Marzo de 2017

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga jaunak eta Jose Luis Arrue Pinto jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as Dª. Amaia Martin Garín, Dª. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, D. Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga y D. José Luis Arrúe Pintó, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.10. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, Larratxoko haurrentzako parkea estaltzearen ingurukoa.**

"Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du, OSOKO BILKURAN azter dadin. Mozioa, 2017ko martxoaren 20ko Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak), Larratxoko haurrentzako parkea estaltzearen inguruan egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Hil honetako Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) adierazi dugun bezala, Larratxoko Osteguna auzo elkarteak, bere aldizkariaren bidez jakinarazi duenez, pozik hartu du auzoko parkea berritzeko albistea. Gainera, bizilagunek ere parte hartu dute. Hala ere, gune hori estaltzeko aspaldiko aldarrikapenari eutsi diote; izan ere, Larratxok umeentzat duen instalazio apurretakoa da parke hori, eta horrela euria ari duenean ere erabili ahal izango litzateke espazioa.

**II.2.10. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA relativa al cubrimiento del parque Barrio de Larratxo.**

"Loïc Alejandro, Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL PARA SU DEBATE EN EL PLENO, fruto de la interpelación sobre el cubrimiento del parque infantil de Larratxo, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos del 20/03/2017.

JUSTIFICACIÓN

Tal y como manifestamos en la comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio de este mes, la asociación de vecinos de Larratxo Osteguna, a través de su revista, considera una buena noticia la renovación del parque del barrio que ha contado con la participación del vecindario. No obstante, mantienen su vieja reivindicación de que se cubra este espacio, ya que es una de las pocas instalaciones con las que cuenta Larratxo para la población infantil, y permitiría utilizar este espacio

también en días de lluvia.

Udal Gobernuak batzorde teknikoa eratu zuen, estal daitezkeen haurrentzako parkeak aztertzeko: Altzako Harria parkea, Egiako Martin Santos plaza (Plaza Handi) eta Groseko Zuberoa plaza.

El Gobierno municipal constituyó una comisión técnica para estudiar los parques infantiles susceptibles de ser cubiertos: parque de Harria en Altza, Plaza Martin Santos (Plaza Handi) en Egia, y el de la Plaza Zuberoa en Gros.

Batzordean, zinegotzi ordezkariari galdetu genion ea Udal Gobernuak aztertu duen estal daitezkeen instalazioen artean Larratxoko parkea sartzeko aukera, auzoko parke txiki hori asko erabiltzen dela ikusirik bizilagunek egindako aldarrikapena aintzat hartuta.

En la comisión preguntamos al concejal delegado si el Gobierno municipal había valorado la posibilidad de incluir también el parque de Larratxo como otra de las posibles instalaciones a cubrir, dada la reivindicación del vecindario motivada por el alto uso que se hace de este pequeño parque en el barrio.

Zoritxarrez, erantzun zigun Harria parkea estaltzeko lanak hasita daudela, eta ez dela beharrezkoa gune horretan esku hartze gehiagorik egitea. Nolanahi ere, Larratxoko parkea erabiltzen duten umeak ez dira neurri berean joaten Harria parkera, urrun ez badago ere (1,5 km inguru), ibilbidea ez baita laua eta gainera adingabeekin joan beharra baitago. Hori dela eta, Harria parkea ezin da izan Larratxokoaren alternatiba, hori baita gune horretako umeek egunero-egunero erabiltzen dutena.

Lamentablemente, se nos respondió que ya se han iniciado las obras para cubrir el parque de Harria, y que no era necesario realizar más intervenciones en la zona. No obstante, los niños y niñas que utilizan el parque de Larratxo, no acuden de igual manera al de Harria, ya que aunque no está lejos, hay cerca de 1,5 kms, el trayecto no es llano y además se realiza con menores. Por esta razón, el parque de Harria no puede ser considerado una alternativa al de Larratxo, que es el que utilizan a diario los niños y niñas de la zona.

Hori dela eta, hauxe da gure

Por este motivo presentamos la siguiente

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1.- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Larratxoko haurrentzako parkea estal dezala.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, insta al Gobierno municipal a cubrir el parque infantil de Larratxo.

Donostia, 2017ko martxoaren 24a

Donostia, a 24 de Marzo de 2017

Izpta.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia".

Fdo.: Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Olaia Duarte Lopez andreak, Enrique Ramos Vispo jaunak eta Jose Maria Murguiondo Casal jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Loïc Alejandro, Dª. Olaia Duarte López, D. Enrique Ramos Vispo y D. José María Murguiondo Casal, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**II.2.11. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, Abegi Etxeari erantsitako eraikina dela eta.**

“Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, MOZIO hau aurkeztu nahi du, Abegi Etxeari erantsitako eraikina dela eta, OSOKO BILKURAN azter dadin. Mozioa hil honetako batzordean egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Udalak larrialdiko harrerarako baliabide ugari ditu, besteak beste, Udalaren Gizarte Abegi Etxeari erantsitako eraikina. Abegi Etxeari erantsitako eraikina adingabeak dituzten familiei dago zuzenduta. Ohatzedun 3 logela ditu (2, 6 eta 8 ohe), sukalde-jantoki bat, bi bainugela eta dutxa bat. Dagokion departamentuaren txostenetan azaltzen denez, salbuespenik ezean, egonaldiak ez dira hiru

**II.2.11. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre el anexo del Abegi Etxea.**

“Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta fruto de la interpelación realizada este mes en comisión la siguiente MOCIÓN PARA SU DEBATE EN EL PLENO, sobre el anexo del Abegi Etxea.

JUSTIFICACIÓN

Entre los diferentes recursos de acogida de emergencia con los que cuenta el Ayuntamiento, se encuentra el anexo del Centro Municipal de Acogida Social (CMAS). Este alojamiento anexo al CMAS es destinado a familias con menores a su cargo. Dispone de 3 habitaciones con literas (de 2, 6 y 8 camas), un cocina-comedor, 2 baños y una ducha. Las estancias, salvo excepciones, según el

gau baino gehiagokoak izaten.

Azken urteetako txostenen arabera, baliabide horren erabilera areagotu egin da: 2014an, 31 bizikidetza unitate 51 adingaberekin egon ziren eraikinean, guztira 312 egunetan; 2015ean, aldiz, 39 familia 65 adingaberekin, eraikina 337 egunetan erabilita. Iazko txostena oraindik ez dago eskuragarri, baina zinegotzi ordezkariak hil honetako batzordean jakinarazi zuen 365 egunetan erabili dela.

Nahiz eta, salbuespenik ezean, toki horretako egonaldiak ez diren hiru gau baino gehiagokoak izaten, errealitatea nagusitzen da. Askotan atzeratu egiten da familientzat etxebizitza aukerak lortzeko unea, edo, hainbat arrazoi tarteko, familiak bertan denbora luzeagoz jarrai dezaten baloratzen dute. Horregatik, 2016ko otsailean mozio bat aurkeztu genuen, eta bertan ostatu hartzen duten eta adingabeak dituzten familien oinarrizko premiak hobeto asetzeko beharrizana planteatu genuen.

Gogoratu beharra dago orduko hartan ere eskatu genuela eraikinean ohikoa baino denbora luzeagoz ostatu hartzen duten adingabeen elikadura eta eskolatzea hobetzeko. Era berean, Udal Gobernuari eskatu genion neurriak har zitzala, bestela zaurgarritasun eta pobrezia egoerak betikotzen ditugulako adingabe horiengan, lo egiteko toki egonkorrik ez izate hutsagatik.

Beraz, beharrezkoa da instalazioak eta bertako zerbitzuak hobetzea, egonaldiak ahalik eta positiboenak eta abegikorrenak izan daitezen, larrialdiko baliabidea izan arren. Nahiz eta hasiera batean egun batzuetarako baliabidea

departamento correspondiente a través de sus memorias anuales indica que no superan las tres noches.

Los informes de los últimos años, vienen a señalar un aumento del uso de este recurso, desde las 31 unidades convivenciales con 51 menores usando el espacio en un total de 312 días para el año 2014, pasando el 2015 a 39 familias con 65 menores y una ocupación del anexo de 337 días. Del pasado año aún no está disponible la memoria pero la concejala delegada informó en la comisión de este mes que el mismo ha estado ocupado los 365 días.

A pesar de tratarse de un lugar donde las estancias, salvo excepciones no superen las tres noches, la realidad se impone y la posibilidad conseguir alternativas habitacionales para las familias en muchos casos se demoran o bien, por diferentes circunstancias, se ha valorado la continuidad de las mismas durante un mayor espacio de tiempo. Es por ello que ya en febrero de 2016 planteamos una moción en la que planteábamos la necesidad de mejorar la cobertura las necesidades básicas de las familias con menores que aquí se alojaban.

Debemos recordar que ya entonces solicitamos la necesidad de mejorar tanto la alimentación como la escolarización de los menores que se alojaban en el anexo por un tiempo superior al habitual y de igual modo instábamos al gobierno municipal a establecer medidas porque, de lo contrario, perpetuamos situaciones de vulnerabilidad y pobreza en estos menores por la simple circunstancia de no tener un lugar estable donde dormir.

Por lo tanto, es necesario instalaciones y sus servicios al objeto de garantizar que a pesar de ser un recurso de urgencia, y vista la realidad que en este recurso se da las estancias, sean lo más positivas y acogedoras

izan, familia batzuk hileak ematen dituzte bertan.

Gaur egun, zorionez, iaz Irabazi taldeak egindako ekimen bati esker, Abegi Etxeari erantsitako eraikinean egonaldi luzeagoak egiten dituzten adingabeak eskolatu egiten dituzte.

Oraingo honetan, instalazioak hobetzeko beharra dagoela azpimarratu nahi dugu. Gainera, kontuan hartu behar da instalazioaren erabilera nabarmen igo dela. Eraikinaren barrualdean espazio gutxi dago, eta familiek egonaldi atsegin bat izatea eragozten du horrek. Gogoan izan behar da adingabeekin daudela eta jolasguneak behar dituztela. Halaber, espazio falta horrexegatik, umeentzako kotxeak edo aulkiak egonez gero kanpoan utzi behar izaten dituzte, kale gorrian, eta euria ari duenean ez dago horiek uzteko toki estalirik.

Hori dela eta, KONTROL MOZIO hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Udalaren Gizarte Abegi Etxeari erantsitako eraikinaren kanpoko espazioa handiagotu dezala, bertan dauden adingabeentzat jolasgune bat jartzeko.

2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Udalaren Gizarte Abegi Etxeari erantsitako eraikinaren kanpoaldearen zati bat estal dezala, adingabeen kotxeak edo aulkiak busti gabe gorde ahal izateko.

posibles. Hay familias que están meses en ese recurso a pesar de ser previsiblemente para unos días.

A día de hoy afortunadamente debemos señalar que tras la iniciativa del pasado año llevada a cabo por el grupo municipal Irabazi, se ha constatado que aquellos menores cuya estancia se prolonga en el anexo están siendo escolarizados.

En esta ocasión, queremos insistir en la necesidad de mejorar las propias instalaciones observando además que hay un ascenso significativo del uso del mismo. El escaso espacio en el interior del anexo impide una estancia confortable para las familias. Hay que tener en cuenta que están con menores y éstos necesitan espacios de juego. Igualmente, por esta misma ausencia de espacio, si hay elementos tales como sillas o coches de niños se han de quedar en la calle, a la intemperie, lo que provoca que en días de lluvia, no haya un espacio cubierto donde depositar tales elementos.

Por este motivo, planteamos la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a aumentar el espacio exterior del anexo del Centro Municipal de Acogida Social (CMAS) al objeto de habilitar un lugar de juegos para los menores que están en ese espacio.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a cubrir una parte del exterior del anexo del Centro Municipal de Acogida Social (CMAS) al objeto de habilitar un espacio para guardar sillas y/o coches de menores y que éstos no se mojen.

3. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio azterketa bat egin dezala Udalaren Gizarte Abegi Etxeari erantsitako eraikinak duen erabileraren inguruan, hirian beste espazio osagarri batzuk —handiagoak eta egonaldi luzeetarako baldintza hobeak dituztenak— jartzeko aukera aztertzeko.

Donostia, 2017ko martxoaren 24a

Izpta.: Amaia Martin,
Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzia".

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a elaborar un estudio sobre los usos del anexo del Centro Municipal de Acogida Social (CMAS) al objeto de plantear la posibilidad de habilitar otros espacios adicionales en la ciudad más amplios y con mejores condiciones para las estancias prolongadas.

Donostia a 24 de marzo de 2017

Fdo.: Amaia Martin
Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Olaia Duarte Lopez andreak, Aitziber San Roman Abete andreak eta Jose Luis Arrue Pinto jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as Dª. Amaia Martín Garín, Dª. Olaia Duarte López, Dª. Aitziber San Román Abete y D. José Luis Arrúe Pintó, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**II.2.12. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, Belartza 2ren kontzertazio hitzarmenari buruzkoa.**

"Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzi Loïc

**II.2.12. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre el incumplimiento del convenio de concertación de Belartza Alto.**

"Loïc Alejandro, Concejal del Grupo Municipal

Alejandrok, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du, OSOKO BILKURAN azter dadin. Mozioa, 2017ko martxoaren 20ko Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordean, Belartza 2ren kontzertazio hitzarmenari buruz egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

2002an, hirigintza hitzarmena izenpetu zuten, eta bertan jabeak konpromisoa hartu zuen Udalari lursail bat —C lursaila izenekoa— lagatzeko, AÑ.13.1 Belartzako goialdea azpiesparruaren barruan.

2009an, jabeak kontzertazio hitzarmena izenpetu zuen. Dokumentu horretan ez da ageri zinegotzi ordezkariaren sinadura. Hala eta guztiz ere, Hirigintza Saileko zerbitzu juridikoak uste du dokumentua baliozkoa izan daitekeela.

2009ko kontzertazio hitzarmenak C lursaila lagatzearen inguruan 2002an ezarritakoa jaso zuen, eta honako hau adierazten zuen: "Birpartzelazio Proiektua aurkezteko epea hiru hilabetekoa izango da, hitzarmen hau izenpetzen denetik aurrera." Segur aski krisiari egotz dakizkiokeen arrazoiak tarteko, ez dute sekula aurkeztu Birpartzelazio Proiektu hori. Beraz, ez da bete 2009an aurkeztutako kontzertazio hitzarmena.

Zortzi urte beranduago, 2017ko otsailean, jabeak beste kontzertazio hitzarmen bat aurkeztu zuen, baina bertan ez zen jasotzen C lursaila lagatzearen inguruan 2002an ezarritakoa. Hortaz, zerbitzu teknikoek horren kontrako txostena egin zuten. Aipatu beharra dago, aurkeztutako testuaren aurrekarien atalean, ez duela jartzen 2009an kontzertazio hitzarmena aurkeztu zela eta Birpartzelazio

Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL PARA SU DEBATE EN EL PLENO, fruto de la interpelación sobre el Convenio de Concertación de Belartza 2 en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio del 20/03/2017.

JUSTIFICACIÓN

En 2002 se firmó un Convenio Urbanístico en el cual la propiedad se comprometía a ceder al Ayuntamiento una parcela (llamada “parcela C”) dentro del marco del desarrollo del subámbito AÑ13.1 Belartza Alto.

En 2009 la propiedad firmó un Convenio de Concertación. En este documento no figura la firma del Concejal Delegado. Pero a pesar de eso, desde los servicios jurídicos del departamento de urbanismo, se considera que este documento puede ser válido.

El Convenio de Concertación de 2009 recogía lo estipulado en 2002 en cuanto a la cesión de la parcela C, e indicaba lo siguiente: “El plazo de presentación del Proyecto de Reparcelación será de 3 meses desde la firma del presente Convenio”. Por motivos probablemente atribuibles a la crisis, nunca se ha presentado dicho Proyecto de Reparcelación. Eso constituye un incumplimiento del Convenio de Concertación presentado en 2009.

8 años más tarde, en febrero de 2017, la propiedad presentó un nuevo Convenio de Concertación que no recogía lo estipulado en 2002 en cuanto a la cesión de la parcela C, con lo cual se informó desfavorablemente desde los servicios técnicos. Cabe señalar que, en el repaso de los antecedentes que figura en el texto propuesto, se omite también que ya se ha presentado un Convenio de

Proiektua ez zela egin epe barruan.

Concertación en 2009 y que no llegó a realizarse el Proyecto de Reparcelación en el plazo establecido.

2017ko martxoaren 13an, jabeak berriz ere aurkeztu zuen beste kontzertazio hitzarmen bat. Oraingoan, C lursailaren lagapena jasotzen du, baina oraindik ez du aipatzen 2009ko kontzertazio hitzarmena ez zela bete. Kontrol mozio hau idazteko unean, zerbitzu teknikoak oraindik aztertzen ari dira azken kontzertazio hitzarmen hori.

El 13 de marzo 2017, la propiedad ha presentado nuevamente otro nuevo Convenio de Concertación que, esa vez, recoge la cesión de la parcela C pero sigue sin mencionar la oportunidad fallida del Convenio de Concertación de 2009. En el momento de la redacción de esta moción de control, esta última entrega del Convenio de Concertación está todavía en fase de análisis por los servicios técnicos.

2009ko kontzertazio hitzarmena izenpetu eta hurrengo hiru hileetan Birpartzelazio Proiektua aurkeztu ez izana arrazoi nahikoa da Udalak baliozkotzat ez jotzeko. Jabeak izan du hura garatzeko aukera, eta ez du aprobetxatu.

El hecho de que no se haya presentado un Proyecto de Reparcelación en los 3 meses después de la firma del Convenio de Concertación de 2009, es motivo suficiente para que el Ayuntamiento determine que éste ya no es válido. La propiedad ha tenido su oportunidad para realizar el desarrollo, y no la ha utilizado.

Beraz, bi aukera daude:
1. Udalak berak garatzea azpiesparru hori.

2. Bertan behera uztea azpiesparru horren garapena, garatzeko beharrik ez dagoela arrazoituta.

En este caso, dos alternativas se presentan:
1. que el Ayuntamiento realice él mismo el desarrollo del subámbito
2. que se abandone el desarrollo en este subámbito, justificando la no necesidad de desarrollarlo

Planifikatutako garapen hori ez egiteko arrazoi ugari daude:

Los motivos para no realizar el desarrollo planificado no faltan:

- Belartzako goialdeko lursail erdia baino gehiago "hiri inguruko landa lurzoru" gisa dago sailkatuta, Donostialdea-Bidaso Behereko Lurralde Plan Partzialaren arabera. Hauxe dio Lurralde Plan Partzialak: "Lehendik zeuden hirigintza erabilerak finkatuko dira gune horietan eta, hala badagokio, udal planeamendu orokorrean berriz aztertuko dira planeamenduan aurreikusita baina oraindik garatu gabe dauden hirigintza

- Más de la mitad de la parcela de Belartza Alto está calificada como “suelo rural periurbano” por el Plan Territorial Parcial (PTP) Donostialdea-Bajo Bidasoa. Al respecto, dice así el PTP: “Se consolidan en estas zonas los usos urbanísticos preexistentes y se someterán a reconsideración territorial en el planeamiento general municipal, en su caso, los posibles usos urbanísticos previstos en el

erabilerak."

- Belartzako goialdeko lursail osoa dago "fauna mehatxatua —zehazki, hegoaldeko zuhaitz igela—" dagoen eremuaren barruan, eta onartuta dago horretarako Kudeaketa Plana.
- Gaur egun badaude birgaitu beharreko industrialde hondatuak, edo lautada hutsak, besteak beste Eskuzaitzeta. Hura urbanizatzeko habitat naturaleko 72 ha kendu zituzten, eta urteak pasatu ondoren hutsik jarraitzen du.

- Batzordean, Hirigintzako zinegotzi ordezkariak azpimarratu zuenez, Eskuzaitzetaren publizitatea egiteko esfortzu handiak egin arren eta Gipuzkoako industrialde handiena izan arren, enpresa gutxik erakutsi dute interesa.
- Lurralde Plan Partzialaren arabera, "Donostialdea-Bidaso Beherean instalatutako industria sektoreak lanpostuen % 21,2 galdu zituen 2012an, 2008arekin alderatuz gero". Beraz, horrek erakusten du ez dagoela industriarako lurzoruen eskaerarik.
- Udalerrian, okupatuta dauden industriarako lurzoruek 264000 m² inguru hartzen dituzte. Eskuzaitzetak 290000 m²-ko azalera du, eta ia-ia hutsik dago. Hau da, gaur egun, udalerrian industrien kopurua bikoiztu ahal izango litzateke soilik Eskuzaitzeta erabilita.
- Belartzako goialdea ez da ageri Lurralde Plan Partzialean proposaturiko "jarduera ekonomikoetarako lurzorua sortzeko eragiketa nagusien" zerrendan; Eskuzaitzeta, ordea, zerrenda horretan dago, nahiz eta hutsik jarraitzen duen.
- Lurralde Plan Partzialak hauxe dio: "epe laburrean jarduera ekonomikoetarako lurzorua edukitzeko beharra asetzen du planeamenduak, are gehiago,

planeamiento, pero todavía no desarrollados”.

- La totalidad de la parcela de Belartza Alto se encuentra dentro del área de presencia de “fauna amenazada (concretamente la ranita meridional) con Plan de gestión aprobado”.
- Actualmente existen áreas industriales degradadas por rehabilitar, o explanadas desiertas, entre ellas Eskuzaitzeta, para la que se eliminaron 72 Ha de hábitat natural para su urbanización, y que años después sigue desierta.
- En comisión, el Concejal Delegado de Urbanismo subrayó que, a pesar de hacer un esfuerzo importante para publicitar Eskuzaitzeta, y a pesar de que sea el suelo industrial más grande de Gipuzkoa, pocas empresas muestran interés en el mismo.
- El PTP indica que “sectorialmente, la industria instalada en Donostialdea-Bajo Bidasoa en 2012 pierde respecto a 2008 el 21,2% de sus puestos de trabajo”, lo cual indica que no hay una demanda de suelos industriales.

- El suelo industrial ocupado en el municipio es de unos 264000m². La superficie de Eskuzaitzeta es de unos 290000m² y está prácticamente vacío. Significa que, a día de hoy, se podría duplicar la presencia de industrias en el municipio solo con Eskuzaitzeta.
- Belartza Alto no figura en la lista de las “principales operaciones de creación pública de suelo para actividades económicas” propuestas en el PTP (en cambio Eskuzaitzeta sí figura en esa lista, a pesar de seguir vacío).
- El PTP afirma que “la necesidad de disponibilidad de suelo para actividades económicas ya se encuentra sustancialmente cubierta en

soberakinak ere baditu".

el corto plazo con el planeamiento vigente, incluso con algunos excedentes".

Hauxe da horren guztiaren ondorioa:

- Belartzako goialdearen garapena proposatu zen garaiarekin alderatuta, gaur egun askoz ere gutxiago behar dira industria eta, oro har, ekonomia jarduеretarako lurzoruak.
- Gaur egungo eta etorkizuneko eskaerari erantzuteko beste espazio batzuk erabil daitezke, Udalak hainbat milioi euro inbertitu baititu —adibidez, Eskuzaitzetan 6 milioi euro legealdi honetan—.
- Jabeek irabaziak ateratzeko interesez harago, ez dago Belartzako goialdea garatzeko beharrizan objektiborik.

La conclusión de todo esto es que:

- Comparando con la época en la que se planteó el desarrollo de Belartza Alto, hoy hay una necesidad mucho menor de suelos para actividades industriales, y económicas en general.
- Se puede dar una respuesta a la demanda actual y futura con otros espacios existentes en los que el Ayuntamiento ya ha invertido varios millones de euros (6 millones en Eskuzaitzeta en lo que va de legislatura por ejemplo).
- Más allá del interés lucrativo particular de los propietarios, no hay necesidad objetiva de desarrollar Belartza Alto.

Hori dela eta, KONTROL MOZIO hau aurkezten dugu:

Por estos motivos planteamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak gobernu taldeari eskatzen dio 2017ko martxoan aurkeztutako AÑ.13.1 Belartzako goialdearen kontzertazio hitzarmena baztertzeko, ez delako bidezkoa, 2009an aurkeztutako kontzertazio hitzarmenaren sinatzaileek ez baitzituzten bertan jasotako betebeharrak bete.

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al equipo de gobierno a rechazar el Convenio de Concertación de AÑ13.1 Belartza Alto presentado en marzo 2017, por ser improcedente ya que los firmantes del precedente Convenio de Concertación presentado en 2009, no cumplieron con las obligaciones recogidas en él.

2. Donostiako Udalbatzak gobernu taldeari eskatzen dio bertan behera utz dezala plangintzan AÑ.13.1 Belartzako goialdean aurreikusitako garapena, kontuan hartuta jarduera ekonomikoetarako lurzoruen eskaera txikia dela, udalerrian eskaintza handia dagoela mota horretako lurzoruetarako eta Belartzako goialdeak balio ekologiko handia

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al equipo de gobierno a abandonar, en la planificación, el desarrollo previsto en AÑ13.1 Belartza Alto, a la vista de la poca demanda de suelos para actividades económicas, de la alta oferta actual de ese tipo de suelos en el municipio, y de los valores ecológicos de Belartza Alto

duela.

Donostia, 2017ko martxoaren 24ª

Sin.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia".

Donostia a 24 de Marzo de 2017

Fdo. Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Enrique Ramos Vispo jaunak eta Ricardo Burutaran Ferre jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Loïc Alejandro, D. Enrique Ramos Vispo y D. Ricardo Burutarán Ferré, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**12. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 12:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**12. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 12:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

**ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.**

---------------

**II.2.13. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, Oletako pasabideari buruzkoa.**

“Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen dion babesa aintzakotzat hartu, eta MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari. Mozioa, 2017ko martxoaren 20ko Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak), Oletako pasabideari buruz egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Oletako pasabidea (Altza) oso egoera txarrean dago. Inguruko bizilagunentzat pasabide hori beharrezkoa da Buenavistatik Herrerara doan bidegorrira eta oinezkoentzako pasealekura joateko, baita portuko zeharbidetik pasatzen den autobusa hartzeko ere.

Pasabideko sarbideak ez du bermatzen irisgarritasun unibertsala, eta oztopo larria da adinez nagusiak diren edo mugitzeko arazo gehiago dituzten inguruko bizilagunentzat.

Gainera, pasabideak hezeguneak eta argiztapen falta ditu, eta, bizilagunen ustez, inguruko puntu beltz edo puntu kritiko nagusietako bat da.

Azken batzordean, zinegotzi ordezkariak aitortu zuen pasabidea egoera txarrean dagoela, eta iragarri zuen Udalak aurreikusita daukala hezeguneak konpontzea eta argiztapena hobetzea, baina puntu horretan

**ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.**

**II.2.13. Moción de control presentada por el Grupo PP relativa al pasadizo de Oleta.**

“Doña Miren Albistur Garmendia, Portavoz del grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCION a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Espacio Público. Obras y Servicios Urbanos, celebrada el día 20 de Marzo de 2017, relativa al pasadizo de Oleta.

JUSTIFICACION

El pasadizo de Oleta, en Altza, presenta muy mal estado. Es un paso necesario para los vecinos de la zona a la hora de acceder al paseo peatonal y al bidegorri que va de Buenavista a Herrera, y a la hora de ir a coger el autobús que pasa por la Travesía del Puerto.

El acceso al pasadizo no garantiza la accesibilidad universal, y es un grave impedimento para aquellos vecinos de la zona que cuentan con una avanzada edad o que tienen más dificultades para desplazarse.

El estado del pasadizo presenta, además, humedades y falta de iluminación y los vecinos los consideran uno de los principales puntos negros o críticos de la zona.

En la última Comisión, el Concejal Delegado reconoció el mal estado del pasadizo y anunció que el Ayuntamiento tiene previsto arreglar las humedades y mejorar la iluminación que presenta el mismo, pero que

irisgarritasuna hobetzeak ez daukala konponbide errazik, are gehiago, gertagaitza dela, espazio horren ezaugarriak direla eta.

la mejora de la accesibilidad en ese punto no tiene una solución fácil; es más, que se antoja remota, por las características del espacio.

Oletako pasabidearen egungo egoera hobetzeko eta inguruko bizilagunei zerbitzu hobea eskaintzeko asmoz, Talde Popularrak MOZIO hau aurkezten du:

Con objeto de que el pasdizo de Oleta mejore su actual estado, en aras de ofrecer un mejor servicio a los vecinos de la zona, es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

1.- Donostiako Udalbatzak alkateari eta Gobernu Taldeari eskatzen die Oletako pasabideko hezeguneak konpon ditzatela eta argiztapena hobetu dezatela, bizilagunen eta erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko.

1.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que proceda a arreglar las humedades que presenta el pasadizo de Oleta y a mejorar su iluminación, para garantizar la seguridad de los vecinos y usuarios del mismo.

2.- Donostiako Udalbatzak alkateari eta Gobernu Taldeari eskatzen die azter dezatela Oletako pasabidea irisgarri egiteko modua, mugikortasun arazoak, gurpil aulkiak, umeen kotxetxoak eta abar dituztenek erabili ahal izateko.

2.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que estudien la forma de hacer accesible el pasadizo de Oleta para su uso por parte de personas con movilidad reducidad, sillas de ruedas, cochecitos de niños, etc.

Donostian, 2017ko martxoaren 24an

En Donostia/ San Sebastián, a 24 de Marzo de 2017

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea”.

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular”.

Jose Maria Murguiondo Casal jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el señor D. José María Murguiondo Casal, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.14. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, Herrera pasealekuko 42. zenbakiari buruzkoa.**

“Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen dion babesa aintzakotzat hartu, eta MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari. Mozioa, 2017ko martxoaren 20ko Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak), Herrera pasealekuko 42. zenbakiari buruz egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Herrera pasealekuan, 42. zenbakiaren parean, zenbaki bakoitien aldean badago espazio faltagatik eten egiten den espaloi bat, jabetza pribatu bateko hormatxoarekin bat egiten duelako eta bertara bi auzo komunitatetako eskailerak irteten direlako.

Oletako ibarra berriz urbanizatzeko lanetan, Udal Gobernuaren arabera, Herrera pasealekuko espaloia konponduko dute eta Oletako bihurgunearen eta Itziartxo-enea etxearen arteko tartea zabalduko dute. Ondorioz, baliteke zebra bideak eta semaforoak ere aldatu behar izatea ibar inguruan.

Inguruko bizilagunek eskatu dute, pasealeku horretan, ibiltzeko modukoak izan daitezela alde bietako —zenbaki bakoitietako zein bikoitietako— espaloiak eta hobetu dezatela espaloien egoera. Gainera, haien ustez, jabetza pribatuko lursail bat egotea ez da oztopoa izan behar Udalak jabeekin hitzarmen bat adosteko eta horrela inguruari irtenbidea bilatzeko.

**II.2.14. Moción de control presentada por el Grupo PP relativa al Paseo de Herrera, número 42.**

“Doña Miren Albistur Garmendia, Portavoz del grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCIÓN a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Espacio Público. Obras y Servicios Urbanos, celebrada el día 20 de Marzo de 2017, relativa al Paseo de Herrera, número 42.

JUSTIFICACION

El Paseo de Herrera, a la altura del número 42, presenta, en el lado de los impares, una acera que se interrumpe debido a la falta de espacio que se produce al coincidir con un murete que pertenece a una propiedad privada, y en la que desembocan las escaleras que provienen de dos comunidades de vecinos.

En el caso de la reurbanización prevista para la vaguada de Oleta, la intervención plantea, según el Gobierno Municipal, arreglar la acera del Paseo de Herrera y ensancharla entre la curva de Oleta y la casa Itziartxo-enea, lo que podría implicar también algún cambio en los pasos de cebra y semáforos en la zona que perimetra la vaguada.

Plantean los vecinos de la zona que se hagan transitables las aceras en este Paseo en ambos lados, pares e impares, y mejorar el estado de las ya existentes. Y entienden, asimismo, que el hecho de que haya algún terreno de titularidad privada no debe ser obstáculo para que el Ayuntamiento pueda plantear un convenio con los propietarios y poder dar una solcuión al conjunto de la zona.

Zentzu horretan, eta Altza auzoan bertan, Gobernu Taldeak hitzarmen bana sinatu du Larratxo pasealekuko eta Txirrita Bertsolariaren pasealekuko bizilagunekin espazio horiek berriz urbanizatzeko, behin alde bakoitzaren eskumenak eta erantzukizunak zehaztu ondoren. Oletako eta Herrera pasealekuko bizilagunen iritziz, era horretako irtenbidea egokia izan liteke eremu horretan proposaturiko hobekuntzak egiteko.

Halaber, esku hartzea aprobetxatuta, proposatu dute zebra bide bat jarri beharko litzatekeela, Herrera pasealekutik igotzean dagoen Oletako bihurgunearen eta hurrengo bihurgunearen artean, auzoko komunikazioa hobetzeko eta, bide batez, puntu horretan zirkulazio abiadura moteltzeko.

Joan den batzordean, zinegotzi ordezkariak adierazi zuen duela urte batzuk egon zela proiektu bat zenbaki bakoitien aldean espaloiak zabaltzeko, eta berriz ere hartuko dutela, lehenik eta behin inguruko bizilagunekin elkarrizketak eginez haien beharrizanak ezagutzeko.

Uste dugu beharrezkoa dela proiektua berriz bultzatzea; gainera, Oletako ibarra berriz urbanizatuta ingurua birmoldatuko dela aprobetxatu behar da. Hori dela eta, Talde Popularrak MOZIO hau aurkezten du:

1.- Donostiako Udalbatzak alkateari eta Gobernu Taldeari eskatzen die bil daitezela Altzako eta erasandako komunitateetako bizilagunekin, Herrera pasealekuko zenbaki bakoitien aldean espaloiak zabaltzeko proiektua berriz hartzeko eta garatzeko.

2.- Donostiako Udalbatzak alkateari eta Gobernu Taldeari eskatzen die bizilagunekin

En este sentido, y en el mismo barrio de Altza, el Equipo de Gobierno ha firmado sendos convenios con vecinos de Paseo de Larratxo y Bertsolari Txirrita para reurbanizar sendos espacios, una vez delimitadas las competencias y responsabilidades de cada parte. Entienden los vecinos de Oleta y Paseo de Herrera que una solución de este tipo podría ser la adecuada para llevar a cabo las mejoras propuestas en su zona.

Y plantean, asimismo, que, aprovechando la actuación, debiera preverse un paso de cebra una vez superada la curva de Oleta y, antes de alcanzar la siguiente curva, según se sube por el Paseo de Herrera, para mejorar la comunicación en el barrio y, de paso, aminorar la velocidad de la circulación en ese punto.

En la pasada Comisión, el Concejal Delegado señaló que hace años existía un proyecto para poder ensanchar aceras en ese lado de los impares, que van a volver a retomar, iniciando conversaciones con los vecinos de la zona para conocer sus necesidades.

Consideramos necesario volver a impulsar este proyecto aprovechando, además, la remodelación de la zona con la reurbanización prevista para la vaguada de Oleta, y es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

1.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que se reúnan con los vecinos de Alza y de las comunidades afectadas para poder retomar y desarrollar el proyecto de ensanchamiento de aceras en la zona de los impares del Paseo de Herrera.

2.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de

dituzten elkarrizketetan proposa dezatela eremu horretan zebra bide bat jartzeko aukera, bizilagunak espaloi batetik bestera (bikoitien eta bakoitien artean) igaro ahal izateko eta puntu horretan ibilgailuen trafikoaren abiadura moteltzeko.

Donostian, 2017ko martxoaren 24an

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea".

Gobierno a que, en las conversaciones con los vecinos planteen, asimismo, la instalación de un paso de cebra esa zona, con la idea de permitir el tránsito de los vecinos entre ambas aceras (pares e impares), y para aminorar la velocidad del tráfico rodado en ese punto.

En Donostia/ San Sebastián, a 24 de Marzo de 2017

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular".

Jose Maria Murguiondo Casal jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el señor D. José María Murguiondo Casal, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**15. ETA 28. KONTROL MOZIOAK BATERA AZTERTU DIRA/**

**SE TRATAN CONJUNTAMENTE LAS MOCIONES DE CONTROL N.º 15 Y N.º 28:**

**II.2.15. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Larramendi kalea oinezkoentzat egokitzeari buruzkoa.**

"Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, Larramendi Kalea -Prim eta Urbieta artean- oinezkoentzat egokitzeari buruzko MOZIO hau aurkezten du Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen

**II.2.15. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU relativa a la peatonalización de la calle Larramendi.**

"Josu Mirena Ruiz Martin, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN relativa a la peatonalización de la calle Larramendi –tramo comprendido entre las calles Prim e Urbieta–, para que sea tratada en el Pleno. Esta moción

Batzordean 2017ko martxoaren 20ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

es consecuencia de la interpelación presentada en la reunión del 20 de marzo de 2017 en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACIÓN

Aurreko Udal Gobernuak, Larramendi kalea -Prim eta Urbieta kaleen artean- oinezkoentzat egokitzeko, hartu-emanak izan zituen bertako eragileekin. Garai hartan bertakoen aparkalekuak gehitzea premiazkoa zen, aparkatzeko arazo handiak baitzeuden. Hura zela eta, Larramendiko hobekuntza ezin izan zen burutu. Legealdi bukaeran bertakoentzat aparkalekuak gehitu ziren, eta legealdi berrian 21 hilabete pasatu eta gero, Udal Gobernuak gaiari heldu beharko lioke. Egia da eremu horretan bertakoek aparkatzeko 25 toki daudela eta hori ere landu beharko litzatekeela, konpentsazio neurrien bitartez.

El anterior Gobierno Municipal mantuvo contactos con las y los agentes de la zona con el objetivo de peatonalizar la calle Larramendi, más exactamente, el tramo comprendido entre las calles Prim e Urbieta. En aquella época, había gran necesidad de aumentar el número de aparcamientos para residentes, puesto que era muy difícil aparcar. Ese fue el motivo de que no pudiera llevarse a cabo la mejora de la calle Larramendi. Al final de la legislatura, se hicieron más aparcamientos para residentes. Transcurridos ya 21 meses de la nueva legislatura, el Gobierno Municipal debería ocuparse del tema. Es cierto que en la zona en cuestión hay 25 plazas de aparcamiento para residentes, por lo que debería estudiarse la adopción de medidas compensatorias.

Zinegotzi-ordezkariak, batzordean, ekimena begi onez ikusten zuela adierazi zuen. Merkataritza Aholku Kontseiluaren hurrengo bilerara eramateko hitza eman zuen, baina ez zuen eperik zehaztu eta beste inongo xehetasunik ere ez zuen eman. Zentzu horretan epe laburrean Aholku Kontseilura eramateaz gain, bertako eragileekin (auzotarrak, dendariak eta tabernariak, besteak beste), adostasunak landu beharko liratekeela uste dugu.

El concejal delegado manifestó en la Comisión que veía con buenos ojos la iniciativa. Además, se comprometió a llevar el tema a la próxima reunión del Consejo Asesor de Comercio, pero no fijó ningún plazo ni dio ninguna otra explicación. En este sentido, creemos que, además de que, a corto plazo, la cuestión debe llevarse al Consejo Asesor, también deberían hacerse intentos para llegar a acuerdos con las y los agentes de la zona (vecindario, comerciantes y hosteleros, entre otros).

Horregatik guztiarengatik, hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkezten duen

Por todo ello, el concejal abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN:

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio hiru hilabete barru Larramendi

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita al Gobierno Municipal que

kalea (Prim eta Urbieta kaleen artean) oinezkoentzat egokitzeko egitasmoa Merkataritza Aholku Kontseilura eraman dezala, partaidetzaz hura azter dadin.

Donostian, 2017ko martxoaren 24an

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

presente en el Consejo Asesor del Comercio el proyecto de peatonalización de la calle Larramendi (tramo comprendido entre las calles Prim e Urbieta), para que sea tratado de manera participativa.

San Sebastián, 24 de marzo de 2017

Josu Mirena Ruiz Martin,
concejal del grupo municipal EH Bildu".

**II.2.28. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, kale batzuk oinezkoentzako jartzeari bruzkoa.**

"Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak jartzen duena aintzakotzat hartu eta MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, Gune Publikoen Batzordeak (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) 2017ko martxoaren 20an izan zuen bileran kale batzuk oinezkoentzako jartzeaz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Orain dela aste batzuk, Larramendi kaleko merkataritza plataformak berriz eskatu zuen kalea oinezkoentzako bihurtzeko.

Bai eskaera hori, bai beste batzuk aztertu ziren aurreko legegintzaldian Mugikortasuneko Kontseiluan, baina legegintzaldi honetan orain arte ez da auzi hori aztertu kontseilu horretan, eta, beraz, ez dakigu zein diren udal gobernuak gure hirian kaleak oinezkoentzako bihurtzeko dituen planak.

Merkataritzako Aholkulari Kontseiluan, Ostalaritza Elkarteak –kontseiluan hasi berria–, bere ordezkariaren bidez, San Bartolome kalea biziberritzeari eta horretarako Udalak egin

**II.2.28. Moción de control presentada por el Grupo PP relativa a peatonalizaciones.**

"Doña Miren Albistur Garmendia, Portavoz del grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCION a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Espacio Público. Obras y Servicios Urbanos, celebrada el día 20 de Marzo de 2017, relativa a peatonalizaciones.

JUSTIFICACION

Hace unas semanas la plataforma comercial de la calle Larramendi volvió a reiterar su solicitud de peatonalización.

Esta solicitud y otras ya se estudiaron durante la legislatura pasada en el seno del Consejo Asesor de Movilidad. Sin embargo, en lo que llevamos de legislatura esta cuestión no ha sido analizada en dicho Consejo, por lo que desconocemos cuáles son los planes que tiene el Equipo de Gobierno sobre posibles peatonalizaciones en nuestra ciudad.

En el Consejo Asesor de Comercio los recién incorporados Asociación de Hostelería, a través de su representante, también trasladaron su inquietud sobre la revitalización

beharreko jarduerei buruzko kezka helarazi zuen.

de la calle san Bartolomé y las actuaciones necesarias a realizar por parte del Ayuntamiento.

2017ko aurrekontuan 250.000 € daude “Blas de Lezo kalea konpondu eta oinezkoentzako arinki bihurtzeko eta Triunfo kalea konpontzeko”. Gure alderdia saiatu zen zenbateko horiek handitzen, baina gure zuzenketak ez ziren onetsi, eta horregatik pentsatzen dugu udal gobernuak ekitaldi honetan kaleren bat oinezkoentzako bihurtzeko asmoa balu aurrekontuetan horri dagozkion aldaketak egin beharko lituzkeela.

El presupuesto 2017 dispone de 250.000€ para la “reparación de las calles Blas de Lezo (peatonalización blanda) y calle Triunfo”. Nuestro grupo trató de incrementar estas cantidades pero nuestras enmiendas no fueron admitidas, por lo que entendemos que si el Equipo de Gobierno planteara alguna peatonalización para el presente ejercicio debería de realizar las modificaciones presupuestarias correspondientes.

Orain hurrena izan genuen batzordean, Gobernu Taldeak buruan dituen proiektu batzuen berri eman zigun zinegotzi eskuordedunak, baina ez eperik, ez aurrekonturik, ez lehentasunik… aipatu gabe, eta iragarri zuen proposatutako inguru batzuetako bizilagunekin kontrastatzen ari direla. Halako edo bestelako kasua baino gehiago, ordea, Udal Gobernuak kale batzuk oinezkoentzako moduan jartzearen gaineko politikaren ikuspegi zabalago bat izatea falta dela iruditzen zaigu guri, erasandako jendearekin edo gertuen duten gune hura dinamizatu edo hobetzeko interesa duten bizilagun eta dendariekin kontrastatu ahal izateko.

En la última Comisión, la Concejal Delegada dio cuenta de una serie de proyectos que el Equipo de Gobierno tiene en mente, pero sin concretar los plazos, presupuesto ni prioridades, y anunció que están en contraste con vecinos de algunas zonas propuestas. Más alla de cada caso concreto, echamos de menos una visión más amplia de la política de peatonalizaciones que prevé este Gobierno Municipal, para su contraste con vecinos y comerciantes afectados o interesados en dinamizar o mejorar sus espacios más cercanos.

Hala, guk uste dugu une honetan derrigorra dela oinezkoentzako moduan jartzeko gune eta kaleen ikuspegi oso bat izatea, eta, hori dela eta hauxe da PP taldeak dakarren MOZIOA:

Consideramos necesario en este punto una visión integral de espacios y calles a peatonalizar, y es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

Donostiako Udalbatzak alkateari eta Gobernu Taldeari eskatzen die txosten bat aurkezteko, gure hirian oinezkoentzako moduan jartzeko aztertu diren kaleen gainekoa, bizilagun, dendari eta erasandako beste eragile batzuekin eztabaidatzeko balioko duena, gai horren inguruan hartu behar diren erabakiak

El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que presenten un informe con aquellas calles de nuestra ciudad que se hayan estudiado para su posible peatonalización, y que sirva como base para un debate con vecinos, comerciantes y

ahalik eta egokienak izateko eta proposatutako proiektuak aurrera eraman ahal izateko.

Donostian, 2017ko martxoaren 24an

Miren Albistur Garmendia,
Talde popularraren bozeramailea".

agentes afectados, de cara a optimizar la toma de decisiones al respecto y la puesta en marcha de los proyectos propuestos.

En Donostia/ San Sebastián, a 24 de Marzo de 2017

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular".

Eztabaida hasita, Josu Ruiz Martin jaunak, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Loïc Alejandro jaunak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak, Pilar Arana Perez andreak eta Alkate-Udalburuak parte hartu dute puntu hauetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en estos puntos los/la señores/a D. Josu Ruiz Martín, D. José María Murguiondo Casal, D. Loïc Alejandro, D. Ernesto Gasco Gonzalo, Dª. Pilar Arana Pérez y Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**15. KONTROL MOZIOAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 15:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**28. KONTROL MOZIOAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 28:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

**ABSTENTZIOAK: 0.**

**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**ATSEDENALDIA**

**14:17AN, ATSEDENALDIA EGITEN DA ETA BERRIRO ERE EKITEN ZAIO SAIOARI, 15:20AK DIRENEAN.**

**RECESO**

**SIENDO LAS 14:17 H., SE REALIZA UN RECESO Y SE REANUDA LA SESIÓN, CUANDO SON LAS 15:20 H.**

---------------

**II.2.16. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, B.R.T. hitzarmena dela eta.**

"Axier Jaka Goikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko martxoaren 20ko Gune Publikoko Batzordean aztertutako "BRT Hitzarmena" interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Bus Expres edo Bus Rapid Transit (BRT) Brasilen lehen aldiz martxan jarritako diseinu, zerbitzu eta azpiegitura bereziak dituen garraio publikorako autobus sistema bat da eta Europan ere mugikortasun iraunkorreko eredu berri baten sinbolo bilakatzen ari da gaur egun. Besteak beste, bidaiariak eramateko ahalmen handiak, maiztasun altuek, fidagarritasun eta puntualtasunak, lehentasun semaforikoak, errei propioek edo-eta txartela balidatzeko azpiegitura duten geltoki irisgarriek ezaugarritzen dute sistema hori. Hain zuzen, tranbiaren eta metroaren gaitasun eta azkartasuna izateko, baina autobus arrunten kostu baxu eta sinpletasunarekin.

**II.2.16. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU relativa al convenio BRT.**

"Axier Jaka Goikoetxea, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno. La moción es consecuencia de la interpelación presentada el 20 de marzo de 2017 en la Comisión de Espacios Públicos.

JUSTIFICACIÓN

Bus Expres o Bus Rapid Transit (BRT) es un sistema de autobuses del transporte público que cuenta con un diseño, servicios e infraestructuras especiales y que ha sido puesto en marcha por primera vez en Brasil. Actualmente, se está convirtiendo en símbolo de un nuevo modelo de movilidad sostenible. Algunas de las características del sistema son su gran capacidad de transportar viajeros, sus altas frecuencias, su fiabilidad y puntualidad, el hecho de que tenga prioridad semafórica y carriles específicos, además de sus estaciones accesibles, dotadas de infraestructura que permite validar el billete. Es decir, este sistema tienen la capacidad y velocidad del tranvía y del metro, pero con el bajo coste y la simplicidad de los autobuses ordinarios.

Komunikabideetan irakurri genuen, 2016ko apirilaren 5ean, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuak dBusen 28. lerroa BRT lerro elektrifikatu bilakatzeko proiektua proposatu zuela; sailburuak zionenez, mugikortasun iraunkorra bultzatu eta ibilgailu pribatuari protagonismoa kentzeko. Gerora, 2016ko maiatzaren 11ko Donostiako Tranbia Konpainiaren administrazio kontseiluan, 28. linea, dituen ezaugarri bereziengatik (erabilera eta maiztasun altuak, ibilbidearen erdia bus-erreia dela...), Donostiako lehen BRT elektrifikatu bilakatzeko lerro nagusiak aurkeztu zitzaizkigun. Udal Gobernutik adierazi zitzaigun Eusko Jaurlaritza, Donostiako Udal eta dBusen artean lantzen ari zela proiektua, hitzarmen bat sinatzeko helburua zegoela eta europar finantzaketa lortzea asmoa ere bazutela; baina edozein kasutan, BRT lerroa dBusen ardurapean geratuko zela.

EH Bildutik oso positiboki baloratzen dugu 28. BRT lerro elektrifikatuaren proiektua eta garraio-sistema mota hau Donostiako eta metropoliko mugikortasunaren zutabeetako bat bilaka daitekeela uste dugu.

2017ko martxoaren 20ko batzordeetan gaiaz interpelatuta, Gobernutik adierazi zitzaigun 28. BRT lerro elektrifikatuaren proiektua ez dagoela ez amaitua ez baloratua, kosteari dagokionez, eta horregatik oraindik ere ez dela hitzarmenik sinatu; baina edozein kasutan, Donostian BRT lerroek barnebilduko lituzketen hainbat aspektutan (elektrifikazioa, lehentasun semaforikoa, ordainketa-sistema...) lanean jarraitzen dutela Mugikortasun Departamenduak eta Tranbia Konpainiak.

Ondo baloratzen dugu dBusek eta Mugikortasun Departamenduak BRT lerro elektrifikatua

El 5 de abril de 2016, supimos por los medios de comunicación que la consejera de Medio Ambiente y Política Territorial del Gobierno Vasco había propuesto un proyecto para convertir la línea 28 de dBus en una línea electrificada BRT. En palabras de la propia consejera, el objetivo era impulsar la movilidad sostenible, restando protagonismo al automóvil privado. Posteriormente, en el Consejo de Administración de la Compañía del Tranvía de San Sebastián, reunido el 11 de mayo de 2016, se nos presentaron las líneas principales a seguir para que la línea 28 se convirtiera en la primera BRT electrificada de San Sebastián. La elección de la línea se había hecho en base a sus características: se utiliza mucho y sus frecuencias son altas, en la mitad de su recorrido hay carril bus… El Gobierno Municipal nos informó de que el proyecto se estaba elaborando entre el Gobierno Vasco, el Ayuntamiento y dBus, que su objetivo era firmar un convenio y que pretendían conseguir financiación europea. En cualquier caso, la línea BRT sería responsabilidad de dBus.

EH Bildu valora muy positivamente el proyecto de convertir la línea 28 en una línea electrificada BRT y, además, consideramos que este tipo de sistema de transporte puede convertirse en uno de los pilares de la movilidad de San Sebastián y de la metrópoli.

En respuesta a las interpelaciones presentadas el 20 de marzo de 2017, el Gobierno nos comunicó que el proyecto de convertir la línea 28 en línea electrificada BRT no está ni finalizado ni valorado, en lo que respecta al coste, y que, por ello, todavía no se ha firmado ningún convenio, pero que, en cualquier caso, el Departamento de Movilidad y la Compañía del Tranvía siguen trabajando en diversos aspectos relacionados con las líneas BRT en San Sebastián: electrificación, prioridad semafórica, sistema de pago...

El hecho de que dBus y el Departamento de Movilidad continúen profundizando en los

garatzeko beharrezko aspektuetan lanean jarraitzea, baina zinez 28. lerroa kalitatezko BRT elektrifikatu bilakatu nahi badugu, ezinbestekoa da Udalak Eusko Jaurlaritzarekin konpromiso errealak ixtea, proiektuaren garapen eta finantzaketari dagokionez. Hain zuzen, Gasteizen egitekoa den antzera, non Udalak eta TUVISAk Eusko Jaurlaritzaren inplikazioa lortu duten Arabako hiriburuko periferiako BRT lerroaren garapenerako. Zehazki proiektuaren %65 finantzatzeko prestutasuna eta 2018an 10 milioi euroko aurrekontu plurianuala txertatzeko konpromisoa. Zentzu honetan, ikusita Donostiak ezin duela atzean gelditu, ikusita ez dBusek eta ez Udalak ezin dutela horrelako inbertsioa beren gain hartu eta ikusita Jaurlaritzak B.R.T.-ekin Gasteizen erakutsi duen inplikazioa, uste dugu Donostiarako ere inplikazio bera lortu behar dugula. Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari 28. BRT lerro elektrifikaturako Eusko Jaurlaritzarekin erakunde-arteko hitzarmena sinatzeko kudeaketei lehentasuna eman diezaiela, Gasteizen antzera, Jaurlaritza proiektu berritzaile honen garapen eta finantzaketan inplikatu dadin.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari “28. BRT lerro elektrifikatua” ahal diren europar finantzaketa proiektuetara aurkez dezala, berau garatzeko presio ekonomikoa malguagoa izan dadin.

Donostian, 2017ko martxoaren 24a

Axier Jaka Goikoetxea

aspectos necesarios para desarrollar una línea electrificada BRT nos merece una valoración positiva, pero si de verdad queremos que la línea 28 se convierta en una BRT electrificada de calidad, es imprescindible que el Ayuntamiento adquiera compromisos reales con el Gobierno Vasco en lo que respecta al desarrollo y a la financiación del proyecto. Es así como van a actuar en Vitoria-Gasteiz, donde el Ayuntamiento y TUVISA han logrado la implicación del Gobierno Vasco para el desarrollo de la línea BRT de la periferia de la capital de Álava. Esta implicación se traduce en la disponibilidad a financiar el 65 % del proyecto y el compromiso de incluir, en 2018, un presupuesto plurianual de 10 millones de euros. En este sentido, San Sebastián no puede quedarse atrás, y teniendo en cuenta que ni dBus ni el Ayuntamiento pueden asumir una inversión tan importante y que el Gobierno Vasco ha mostrado una gran implicación con la BRT en Vitoria-Gasteiz, consideramos que en San Sebastián también tenemos que conseguir el mismo nivel de implicación. Es por ello que el concejal abajo firmante presenta la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que dé prioridad a la realización de las gestiones para la firma del convenio interinstitucional con el Gobierno Vasco para convertir la línea 28 en una línea electrificada BRT, para que, al igual que ha hecho en Vitoria-Gasteiz, se implique en el desarrollo y financiación de este proyecto innovador.

2.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que presente la línea electrificada 28 BRT a los proyectos de financiación europeos en los que esto sea posible, para aliviar la presión económica para su desarrollo.

San Sebastián, 24 de marzo de 2017

Axier Jaka Goikoetxea,

EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

concejal del grupo municipal EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Axier Jaka Goikoetxea jaunak, Loïc Alejandro jaunak, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Axier Jaka Goikoetxea, D. Loïc Alejandro, D. José María Murguiondo Casal y Dª. Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.17. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak egina, hiriko sarbideei buruzko Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalaren arteko lankidetza hitzarmenaren ingurukoa.**

“Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, hiriko sarbideei buruzko Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalaren arteko lankidetza hitzarmenaren inguruko MOZIO hau aurkezten du, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2017ko otsailaren 13ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Alkateak eta Bide Azpiegituretako foru

**II.2.17. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU relativa al convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de San Sebastián sobre los accesos a la ciudad.**

“Josu Mirena Ruiz Martin, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN, relativa al convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de San Sebastián sobre los accesos a la ciudad, para su tratamiento en Pleno. Esta moción es consecuencia de la interpelación substanciada el 13 de febrero de 2017 en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

El 6 de mayo de 2016, el alcalde y la diputada de

diputatuak Donostiako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko lankidetza hitzarmena sinatu zuten 2016ko maiatzaren 6an, hiriko sarbideak aztertzeko,besteak beste. Bi batzorde eratu ziren: erakundearteko batzordea eta teknikarien batzordea; lehenengoa, gutxienez, sei hilabetero elkartuko zen eta bigarrena, gutxienez, hiru hilean behin. Hitzarmenak Karlos I.ren biderako zer aukera dauden aztertzeko konpromisoa hartu du. Obskurantismoa, ordea, nabarmena da, ez udal taldeok ez auzotarrek ez dakigulako ezer bilera horietan aztertutako gaiez, orain arte emandako pausoez eta etorkizunean egin beharreko bideaz. Ez dugu ulertzen “gobernantza berria” eta “gardentasuna” etengabe ahotan hartuta dabilen gobernu batek horrela jokatzea.

Infraestructuras Viarias suscribieron un convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de San Sebastián y la Diputación Foral de Gipuzkoa para estudiar el tema de los accesos a la ciudad, entre otros asuntos. Para ello, se crearon dos comisiones, una interinstitucional y otra técnica. Se decidió que la primera de ellas se reuniría una vez cada seis meses, como mínimo, y la segunda, al menos, una vez cada tres meses. En el convenio se recogía el compromiso de estudiar las diferentes posibilidades para el vial de Carlos I. Sin embargo, el oscurantismo con que se actúa en esta cuestión es evidente, ya que, ni los grupos municipales ni el vecindario sabemos nada sobre los temas que se han estudiado en las reuniones llevadas a cabo, ni sobre los pasos que se han dado, ni sobre lo que se va a hacer en adelante. No entendemos cómo un gobierno que habla constantemente de “nueva gobernanza" y de “transparencia” puede actuar de este modo.

Pilar Arana zinegotzi-ordezkariak batzordean emandako erantzuna negargarria izan zen. Proiektuen bilketa egiten ari zirela, horregatik aurrerapausorik ez dutela eman eta beraz, komunikatzeko gairik ez zutela adierazi zuen. Bitartean Karlos I-go auzotarrek, bi gobernuek ia bi urte eta instituzioen arteko akordioa 10 hilabete bete dituztenean, zain jarraitzen dute, ezer jakin gabe.

La respuesta que la concejala delegada, Pilar Arana, nos proporcionó en comisión fue lamentable. Señaló que estaban recopilando diversos proyectos, que por ese motivo no han dado pasos adelante, y que, por tanto, no tenían nada que comunicar. Mientras tanto, cuando los dos gobiernos llevan casi dos años y el acuerdo interinstitucional ha cumplido ya diez meses, los vecinos y las vecinas de Carlos I siguen esperando, sin tener noticias.

Horregatik guztiarengatik, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

Por todo ello, el concejal abajo firmante presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Karlos I.go auzotarrekin bilera irekia egin dezala, auzoan bertan, inguru honen etorkizuneko proiektuak eta bide horretan Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera emandako urratsak konpartitzeko.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita al Gobierno Municipal que convoque una reunión abierta con los vecinos y las vecinas de Carlos I en el barrio, con el objeto de compartir los proyectos de futuro previstos en la zona y de informar de los pasos que en esta vía se han dado, hasta el momento, con la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Donostian, 2017ko martxoaren 24an

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

En San Sebastián, a 24 de marzo de 2017

Josu Mirena Ruiz Martin,
concejal del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Josu Ruiz Martin jaunak, Amaia Martin Garin andreak, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Josu Ruiz Martín, Dª. Amaia Martín Garín, D. José María Murguiondo Casal, D. Ernesto Gasco Gonzalo y Dª. Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.18. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, amiantodun eraikinen mapa edo errolda egiteaz eta gai horren gaineko neurriak hartzeari buruzkoa.**

"EH BILDU udal taldeko zinegotzi Ricardo Burutaran Ferrek, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, amiantodun eraikinen mapa edo errolda egiteaz eta gai horren gaineko neurriak hartzeaz. Mozioa joan den martxoaren 20ko Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko apirilean egindako osoko bilkuran, aho batez onartu zen EH BILDUk aurkeztutako

**II.2.18. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU en relación a la elaboración de un mapa o censo de edificios con amianto y otras medidas a implementar en relación al mismo.**

"Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico de Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL para ser tratada en Pleno, en relación a la elaboración de un mapa o censo de edificios con amianto y otras medidas a implementar en relación al mismo. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio el pasado 20 de marzo.

JUSTIFICACIÓN

En sesión plenaria celebrada en el mes de abril de 2016, se aprobó por unanimidad la siguiente

kontrol mozio bat, eta horren bitartez honako hau erabaki zen:

"1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari egin dezala gure hirian amiantoa duten eraikin edo higiezinen errolda edo mapa bat.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernuari har ditzala hartu beharreko neurriak amiantoaren eraginpean egoteak osasunerako izan ditzakeen arriskuen edo eraginen inguruan informatzeko eta prestatzeko amiantoa duten eraikinetan edo instalazioetan jardun behar duten udal langileak.

Halaber, udal gobernuari hertsatuki eskatzen dio har ditzala bidezko neurriak eta ezar ditzala jarduera protokoloak, Laneko Arriskuak Prebenitzeko Atalarekin batera, amiantoa duten elementu edo higiezinetan nola esku hartu behar den edo nola konpondu behar diren zehazteko.

3.- Era berean, hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari jar dezala martxan eta planifika dezala udal eraikin edo lursailetan dagoen amiantoa deuseztatzeko eta kentzeko programa bat, lehentasuna emanda egoerarik okerrenean daudenei edo bizitza erabilgarria amaitua dutela ezagun dutenei.

4.- Hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari azter dezala zer programa jar litekeen martxan herritarrak amiantoa deuseztatzearen eta jarraibideak betetzearen komenigarritasunaz sentsibilizatzeko."

Badakigu kontrol mozioa osorik betetzeko prozesua apurka-apurka eta mailaz maila egin behar dela eta gaiari hainbat aurrekontu ekitalditan heldu behar zaiola. Baina horrek ezin du inola ere justifikatu, mozioa onartu zenetik 11 hilabete igaro diren honetan, oraindik ez eskatu izana Udalaren jabetzako amiantodun eraikinen mapa egiteko, ez egin izana kanpainarik

moción de control presentada por EH BILDU, por la que se acuerda lo siguiente:

“1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a elaborar un censo o mapa de edificios o inmuebles que contengan amianto en nuestra ciudad.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno a implementar medidas de información y formación del personal municipal que en su quehacer profesional tenga que enfrentarse a edificios o instalaciones con amianto sobre los riesgos o afecciones que supone para la salud.

Asimismo se insta al Gobierno Municipal a que adopte las medidas oportunas y protocolos de actuación, junto con el servicio de prevención laboral, a seguir en la intervención o reparación de elementos o inmuebles que contengan amianto.

3.- Se insta asimismo al equipo de gobierno a poner en marcha, y planificar, un programa de erradicación y retirada del amianto presente en edificaciones o parcelas municipales; priorizando aquel que se encuentre en peor estado o que haya dado muestras de finalización de su vida útil.

4.- Se insta al equipo de gobierno a estudiar la puesta en marcha de programas de sensibilización de la población sobre la conveniencia de eliminación del amianto y de las pautas a seguir”.

Entendemos que el cumplimiento íntegro de la moción de control deba realizarse de modo paulatino y progresivo, abordando la cuestión en distintos ejercicios presupuestarios; pero ello no puede justificar en modo alguno que, habiendo trascurrido ya 11 meses desde la aprobación de la misma, todavía ni se haya encargado la realización de un mapa de amianto de los

herritarrak amiantoari buruzko jarraibideez sentsibilizatzeko, ezta neurririk hartu ez izana ere amiantoa duten eraikinetan edo instalazioetan jardun behar duten udal langileak informatzeko eta prestatzeko.

edificios y propiedades municipales; ni abordado ninguna campaña de sensibilización a la población en general en relación a las pautas a seguir en relación con el amianto; ni implementado medidas de información y formación al personal municipal que en su quehacer profesional tenga que enfrentarse a edificios con amianto.

Kontrol mozioa aho batez onartu zenetik 11 hilabete igaro direnez eta bertan onartutakoa ez denez bete, Udal Gobernuari interpelazioa egin genion horren zergatiez galdetzeko.

Pasados ya 11 meses desde la aprobación por unanimidad de la citada moción de control sin haberse dado cumplimiento a lo aprobado en la misma, interpelamos al Gobierno Municipal por las causas de ello.

Orain arte mozioa ez bete izana justifikatzen saiatu zen Udal Gobernua, esanez 2016an ez zegoela horren izenean aurrekontu partidarik. Gure ustez, hori erraz konpon zitekeen Udalaren aurrekontu orokorretan.

A este respecto, el Gobierno Municipal intentó justificar la hasta ahora falta del cumplimiento de la misma en la ausencia de partida presupuestaria nominal en 2016; algo que pensamos que podía haberse solventado fácilmente en el volumen de los presupuestos generales del Ayuntamiento

Era berean, jakinarazi ziguten pleguak prestatzen ari zirela amiantodun udal eraikinen eta instalazioen mapa egiteko. Gainera, hitzaldi bat antolatzen ari zirela eta aztertzen ari zirela lanean amiantoarekin kontaktuan egon daitezkeen langileei nolako prestakuntza eman behar zaien.

Del mismo modo, se nos informó de que se estaban elaborando los pliegos para la elaboración del mapa de amianto en edificios e instalaciones municipales y de que, asimismo, se estaba trabajando en la realización de una charla y se estaba estudiando cómo formar al personal municipal que en su quehacer profesional se puede encontrar con el amianto.

Begien bistakoa da premiazkoa dela Udalak eta Gobernu Taldeak beharrezko neurri guztiak hartzea aho batez onarturiko kontrol mozioa osorik betetzeko.

Es evidente que es urgente que, por parte del Ayuntamiento y del equipo de gobierno, se pongan todas las medidas necesarias para dar cumplimiento íntegro a lo aprobado por unanimidad en dicha moción de control.

Hori dela eta, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIOA aurkezten du:

Por todo ello, es por lo que el concejal que suscribe formula la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio amiantodun udal eraikinen edo lursailen mapa egiteko eskatu dezala eta, eginda dagoenean, batez ere udal langileei ezagutzera eman diezaiela.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de gobierno a encargar la elaboración del mapa de amianto de edificios o parcelas municipales y, a una vez elaborado el mismo, darlo a conocer, especialmente al personal

municipal.

2.- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, onartutako erabakiak betez, amiantoarekin jardun behar duten udal langileak informatzeko eta prestatzeko neurriak diseina eta har ditzala.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a que, en cumplimiento de los acuerdos aprobados, diseñe e implemente las medidas de información y formación al personal municipal que en su quehacer profesional tenga que enfrentarse al amianto.

3.- Era berean, Udal Gobernuari eskatzen dio, 2017an zehar, martxan jar dezala eta egin dezala kanpaina bat herritarrak amiantoaren inguruko jarraibideez informatzeko eta sentsibilizatzeko.

3.- Asimismo, se insta al Gobierno Municipal a poner en marcha y realizar, a lo largo del 2017, una campaña de sensibilización e información a la población en general sobre las pautas a seguir cuando se encuentran con amianto.

Donostian, 2017ko martxoaren 24an

En Donostia a 24 de marzo de 2017

Ricardo Burutaran Ferré,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Ricardo Burutaran Ferré
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Eztabaida hasita, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Loïc Alejandro jaunak eta Alfonso Gurpegui Ruiz jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Ricardo Burutarán Ferré, D. Loïc Alejandro y D. Alfonso Gurpegui Ruiz, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.19. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak egina, ekonomia sustatzeko planaren diru laguntzen ingurukoa.**

**II.2.19. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU relativa a las subvenciones del Plan de Estímulo Económico**

"Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluak ematen dion aukera

"Josu Mirena Ruiz Martin, concejal del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la

baliatuz, Ekonomia Sustatzeko Planari buruzko MOZIO hau aurkezten du, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2017ko martxoaren 20ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Aurreko agintaldian Udal Gobernuak Ekonomia Sustatzeko Planak abian jarri zituen. Haien aurrekontua beti hazi zen urtez urte: 2012an 4,3M; 2013an, 6,9M; 2014an, 7,3M eta 2015ean, 8,3M. Argi dagoenez, Udal Gobernuaren lehentasunetako bat zen hura. Donostiako Sustapenak, alde batetik, hiriaren ezagutza ekonomikoa hobetu du eta, bestetik, izugarrizko sare bat lantzeko aukera izan du: instituzioak, unibertsitateak, zentro-teknologikoak, auzo elkarteak, ostalaritza, enpresak, merkataritza eta abar. Guztira, 80 eragile baino gehiagok parte hartu dute.

Erabilitako leloek helburuak nabarmentzen zituzten: ”Gehien behar duenarentzat. Gehien behar den lekuan”-”Ekonomia Sustatzeko 2015eko Plana, Kalitatearen eta Berrikuntzaren alde apustu eginez. Enpleguan ere, Kalitateko Donostia baten alde”.

2016ko plana onartu zenean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru laguntza, aurrekontuan, 125.000 eurokoa zen, eta urtean zehar handituko zela esan zigun Udal Gobernuak. Gogorarazi behar da 2015ean, Bildu foru gobernuan zegoela, Donostiako Udalaren ekonomia sustatzeko planak 589.716 euro jaso zituela Ekonomia Sustatzeko Departamentutik.

Iazko azaroko batzordean, zinegotzi-ordezkariak, Ernesto Gasco jaunak, argitu zigun,

siguiente MOCIÓN relativa al Plan de Estímulo Económico, para que sea tratada en el Pleno. Esta moción es consecuencia de la interpelación substanciada en la reunión del 20 de marzo de 2017 en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

En la legislatura anterior, el Gobierno municipal puso en marcha varios planes de estímulo económico, con una consignación presupuestaria que, año tras año, se iba incrementando: en 2012 4,3 M€, en 2013 6,9 M€, en 2014 7,3 M€ y en 2015 8,3 M€. Este hecho refleja claramente que para el Gobierno municipal dicho estímulo constituía una de sus prioridades. En esta línea, Fomento de San Sebastián ha contribuido a que conozcamos mejor la economía de la ciudad y ha desarrollado una gran red, formada por instituciones, universidades, centros tecnológicos, asociaciones vecinales, hostelería, empresas, comercio etc., en la que han participado más de 80 agentes.

Los lemas utilizados destacaban los objetivos que se pretendían alcanzar: “Para quien más lo necesita. Donde más se necesita” – “Plan de Estímulo Económico 2015, Apostando por la Innovación y la Calidad en el Empleo”. Otros de los lemas hablaba de una San Sebastián de calidad, también en el empleo.

Cuando se aprobó el plan del 2016, la ayuda económica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, según el presupuesto, era de 125.000 euros, pero el Gobierno municipal subrayó que dicha cantidad se iba a incrementar a lo largo del año. Hay que recordar que en el 2015, cuando Bildu gobernaba en la Diputación Foral, el Ayuntamiento de San Sebastián percibió 589.716 euros en concepto de ayuda económica para el plan de estímulo económico.

Según aclaró el concejal delegado, Ernesto Gasco, en la comisión de noviembre del año

hala ere, Foru Aldundiaren 2016ko diru-laguntza hura (125.000 euro) ez zetorrela Ekonomia Sustatzeko Departamentutik, baizik eta Mugikortasun eta Lurralde Antolaketa Departamentutik eta Altzan 2016-17an Smart kale bat egitea zuela helburu. Eta hain zuzen ere, gerora jakin dugunez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekonomia Sustatzeko Departamenduak, 2016an, 0 euro bideratu du Donostian ekonomia sustatzeko. 2017ari dagokionez, Ernesto Gascok eskaera luzatuko zuela esan zuen egun hartan, baina oraingoz ez zegoela erantzunik.

Alkate jauna: erantzuna iritsi da. Gipuzkoako Foru Aldundiak 27.000 euroko ekarpena egingo dio aurten sustatzeko planari. Hau da, Ekonomia Sustatzeko Departamenduak, Bilduren gobernuaren azken urtean, 589.716 euroko diru-laguntza eman zuen. Iaz, bat ere ez. Eta aurten, 27.000 euro. Alegia, EAJk departamentu hau hartu zuenetik Foru Aldundian, 20 aldiz diru gutxiago bideratu dio Donostiari, bi urtean, Bilduk urtebetean baino.

Instituzioen arteko akordioaz hainbeste hitz egiten den garai honetan; diputatu nagusiak, bere hitzetan, suspertze ekonomikoari lehentasun osoa ematen dionean; helburu hau lortzeko “konjuratu” omen denean... Esanak eta ekintzak bat ez datozela begien bistakoa da; Foru Aldundia propaganda hutsa egiten ari da.

Martxoko batzordean alkateak onartu zuen kezkatuta zegoela. Eta argi dago Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Departamentuak, EAJren esku dagoenak, Donostiari 2016an 0 euro eta 2017an 27.000 euroko ekarpena egiteak eragin diola kezka hori. Arazoa da, ordea, alkateak bi urte izan dituela kezka hori adierazteko, baina udal talde honek interpelazioa aurkeztu arte ez duela txintik ere esan; eta are larriago, orain arte, bi urteotan, alkateak ez duela ezer ere egin

pasado, la ayuda del 2016 (125.000 euros) no provenía del Departamento de Promoción Económica, sino del Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio, y su objetivo era la puesta en marcha del proyecto de Smart Kalea en Altza en el 2016 y 2017. Según hemos podido saber con posterioridad, el Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral ha destinado, en el 2016, 0 euros al estímulo económico de San Sebastián. En cuanto al 2017, Ernesto Gasco señaló que había remitido una solicitud a dicho departamento pero que todavía no había recibido respuesta alguna.

Señor alcalde: la respuesta ya ha llegado. La Diputación Foral de Gipuzkoa ha realizado una aportación de 27.000 euros al plan de estímulo económico. El Departamento de Promoción Económica, durante el último gobierno de Bildu, otorgó una ayuda económica de 589.716 euros. El año pasado, absolutamente nada. Y este año, 27.000 euros. Es decir, desde que el PNV se ha hecho cargo de este departamento de la Diputación, se ha destinado, en dos años, 20 veces menos a la ciudad de San Sebastián que en un solo año de mandato de Bildu.

En estos tiempos en los que tanto se habla de acuerdo interinstitucional, cuando el diputado general da total prioridad a la recuperación económica, cuando se dice que se ha "conjurado" para alcanzar este objetivo... es evidente que las palabras y los actos no coinciden, y que la Diputación Foral está haciendo pura propaganda.

En la comisión de marzo, el alcalde reconoció que estaba preocupado. Y está claro esta preocupación se la generado el hecho de que el Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral ha aportado a San Sebastián 0 euros en el 2016 y 27.000 euros en el 2017. Sin embargo, el problema es que el alcalde ha tenido dos años para trasladar su preocupación pero que no ha dicho nada hasta que este grupo municipal ha presentado una interpelación; y lo que es más

egoera hau zuzentzeko. Orain esan digunez, alkateak Foru Aldundiarekin hitzarmen bat sinatzeko asmoa du. Asmo hutsa, oraingoz.

Honelako gai garrantzitsu batean, alkatearen konpromiso, ekimen eta zehaztasun falta ikusita -non etorkizuneko asmoei buruzko xehetasunik ere ez dugun-, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA

1-Donostiako Udalbatzak alkateari eskatzen dio behingoz hel diezaiela, lehentasun osoz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekonomia Sustatzeko Departamentuak Donostiari emandako diru-laguntzei eta bi hilabeteko epean akordioa lor dezala erakunde honekin, benetako ekarpena lortzeko eta ekonomia sustatzeko plana eraginkorragoa izan dadin.

Donostia, 2017ko martxoak 24

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

grave, durante estos dos años no ha hecho absolutamente nada para subsanar esta situación. Según nos comunica ahora, tiene la intención de suscribir un convenio con la Diputación Foral. Una mera intención, de momento.

A la vista de la falta de compromiso, iniciativa y detalle que el alcalde ha mostrado ante un asunto tan importante, y teniendo en cuenta que no nos ha proporcionado ninguna información sobre sus intenciones de futuro, el concejal que suscribe presenta la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita al alcalde que aborde, de una vez por todas, el tema de las ayudas económicas que San Sebastián ha percibido por parte del Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, dando total prioridad a este asunto. Asimismo, le solicita que alcance un acuerdo con dicha institución en el plazo de dos meses, para obtener una mayor aportación y para que, de ese modo, el plan de estímulo económico sea más efectivo.

San Sebastián, 24 de marzo del 2017

Josu Mirena Ruiz Martin,
concejal del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Josu Ruiz Martin jaunak eta Alkate-Udalburuak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Josu Ruiz Martín y Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.20. Kontrol mozioa PP taldeak aurkeztua, bizikleta aparkaleku estaliei buruzkoa.**

"Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen dion babesa aintzakotzat hartu, eta MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, Gune Publikoen Batzordeak (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) 2017ko martxoaren 20an izan zuen bileran bizikleta aparkaleku estaliei buruz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Lehengo otsailaren amaieran, txandakako bizikleta aparkaleku estali itxi bat abian jarri zen, lehen aldiz, gure hirian. Aparkaleku horretan, 110 bizikleta arrunt sartzen dira eta bi leku daude bizikleta oso luzeetarako. Horretaz gainera, ibilgailu elektrikoak kargatzeko bi gune ditu, konponketak egiteko tailer txiki bat eta gurpilak puzteko gune bat.

Hirian hainbeste itxarondako ekipamendu hori udal gobernuak bere inbestiduraren ondoren, orain dela urte eta erdi baino lehenago, iragarri zituenetatik lehenengoa da. Mugikortasuneko Atalak 2015ean agertutako asmoek aditzera ematen zuten hiriko zenbait kokalekutan horrelakoak jarriko zirela erabiltzaileek dituzten beharrak betetzeko (gero eta eskaera gehiago egiten dira helburu horrekin), bizikleta ibilgailu gisa erabil dadin sustatzeko eta bandalismo ekintzak eta bizikleta lapurretak saihesteko (800 salaketa urtean, eta % 1 baino ez da berreskuratzen).

Zerbitzu hori beste alderdi batzuetara zabaltzeko ideiak berekin dakar, udal gobernuaren arabera,

**II.2.20. Moción de control presentada por el Grupo PP relativa a aparcamientos cubiertos para bicicletas.**

"Doña Miren Albistur Garmendia, Portavoz del grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCION a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Espacio Público. Obras y Servicios Urbanos, celebrada el día 20 de Marzo de 2017, relativa a aparcamientos cubiertos para bicicletas.

JUSTIFICACION

A finales del pasado mes de febrero se puso en marcha el primer aparcamiento de rotación, cubierto y cerrado para bicicletas que existe en la ciudad. Dispone de 110 plazas estándar, y dos para bicicletas extralargas, y cuenta con dos puntos de carga para vehículos eléctricos y un pequeño taller de reparaciones con herramientas y una zona de inflado de ruedas.

Este equipamiento tan esperado en la ciudad, es el primero de los anunciados por el actual Equipo de Gobierno tras su investidura, hace ya más de un año y medio. Las intenciones expresadas por el Departamento de Movilidad en 2015 apuntaban hacia la disposición de diversos emplazamientos a lo largo de la ciudad para satisfacer las necesidades que, cada vez más, demandan los usuarios; para fomentar el uso de la bicicleta como transporte y para evitar los cuantiosos actos de vandalismo y robo de bicicletas en nuestra ciudad (800 denuncias al año, y sólo se recupera el 1%).

La idea de extender el servicio a otras zonas comprende, según el Equipo de Gobierno,

horretarako guneak egokitzea bai lurrazpiko aparkalekuetan (Kontxakoan, adibidez), bai beste espazio batzuetan, hala nola Easo, Pio XII edo Anoeta aldean.

Alabaina, ez dugu ezagutzen plangintza zehatzik, bizikleta gure hirian joka dezakeen rolari buruzko estrategia global baten parte denik. Plangintza faltari eta aparkaleku estaliak egiteko atzerapenei bizikletak alokatzeko sistema publikoaren egoera gehitu behar, eta horrek ondorioz pentsarazten digu gobernu honek bizikleta bultzatzeko eta erabiltzaileen beharrak asetzeko egiten duen apustua erraz hobe daitekeela.

Azken batzordean, zinegotzi ordezkariak ez zuen bizikleta aparkaleku estaliei edo estali gabekoei buruzko plangintzaren datu gehiagorik eman, gorago adierazitako asmoak zein diren esateaz harago, baina horren berri bagenuen agintaldiaren hasieratik.

Uste dugu, hirian bizikletaren erabilera sustatzeko zer neurri hartu nahi diren ikusita, eta ibilgailu horiek eta erabiltzaileek berez zer ohitura eta behar dituzten aintzat hartuta, ezinbestekoa dela neurri erreal eta zehatzak hartzea, denboran jarraitutasun bat izango dutenak, gobernuan gorabeherak eta aldaketak izanda ere, eta hirian bizikletaren inguruan hauteman diren beharren ondorio izango direnak. Hori dela eta, hauxe da PP taldeak dakarren MOZIOA:

Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta gobernu taldeari txosten bat egin dezatela ahalik eta azkarrena, hurrengo bizikleta aparkaleku estaliak hiriko zer tokitan jarriko dituzten argitzeko eta aparkalekuak instalatzeko eta gauzatzeko epeak zehazteko, bai eta jarduera horiek zer kostu izango duten kalkulatzeko ere.

actuaciones tales como las de habilitar espacios en aparcamientos subterráneos (como La Concha), o en otros espacios, como pueden ser Easo, Pío XII o Anoeta.

Sin embargo, no conocemos una planificación concreta que forme parte de una estrategia global sobre el papel que la bicicleta puede jugar en nuestra ciudad. A la falta de planificación y retrasos en los aparcamientos cubiertos, hemos de sumar la situación que atraviesa el sistema público de alquiler de bicicleta, lo que nos hace concluir que la apuesta de este Gobierno por la bicicleta y por las necesidades de sus usuarios es altamente mejorable.

En la última Comisión, la Concejal Delegada no dio más datos sobre la planificación prevista en materia de aparcamientos para bicicletas, cubiertos o no, más allá de la declaración de intenciones señalada más arriba, ya conocida desde comienzos del presente mandato.

Creemos que las medidas a implementar en la ciudad para fomentar el uso de la bicicleta, así como los hábitos y necesidades propias de estos vehículos y de sus usuarios exigen la adopción de medidas reales, concretas; que tengan una continuidad en el tiempo al margen de vaivenes y cambios de gobierno, y que deriven de las necesidades detectadas en la ciudad en relación a la bicicleta. Por todo ello, el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que, a la mayor brevedad posible, presente un informe en el que se indique en qué lugares se van a ubicar los próximos aparcamientos cubiertos para bicicletas en la ciudad, y que se prevean en el mismo los plazos previstos para su instalación y ejecución, así como los costes que tendrían dichas actuaciones.

Donostia, 2017ko martxoaren 24a

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea".

En Donostia/ San Sebastián, a 24 de Marzo de 2017

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular".

Eztabaida hasita, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Loïc Alejandro jaunak, Pilar Arana Perez andreak eta Axier Jaka Goikoetxea jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. José María Murguiondo Casal, D. Loïc Alejandro, Dª. Pilar Arana Perez y D. Axier Jaka Goikoetxea, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.21. Kontrol mozioa PP taldeak aurkeztua, Altzako topo geltokia dela eta.**

"Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluak ematen dion babesa aintzakotzat hartu eta MOZIO hau aurkezten dio Udalbatzari, azter dezan, Gune Publikoen Batzordeak (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) 2016ko martxoaren 16an izan zuen bileran Altzako topo geltokia dela-eta egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Altzako topo geltokiaren obrak amaituta,

**II.2.21. Moción de control presentada por el Grupo PP relativa a la estación del Topo de Altza.**

"Doña Miren Albistur Garmendia, Portavoz del grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCION a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Espacio Público. Obras y Servicios Urbanos, celebrada el día 20 de Marzo de 2017, relativa a la estación del Topo de Altza.

JUSTIFICACION

La finalización de las obras de la estación del Topo

nabarmen gelditu da badirela zenbait egoera guztiz hobetzeko modukoak ekipamendu horretako irisgarritasuna dela-eta. Alderdi politiko honen eskariz, hainbat ekimen aurkeztu izan dira gaur egungo egoera hobetzeko eta hirian etorkizunean eraikiko diren ekipamenduetan irisgarritasun unibertsala bermatzeko, Altzan gertatutakoa gerta ez dadin.

Hango bizilagunek kexaka jarraitzen dute gaur egungo geltokiak irisgarritasun unibertsala bermatzen ez duelako, geltokiko bi sarreretarako balio duen igogailu bat egon arren.

Esate baterako, gehien erabiltzen den sarreraren kasuan, Santa Barbara kaleko 4. zenbakiaren parekoan, bizilagunek gainaldera igotzeko eskailera mekanikoak edo, bestela, funtzio hori beteko duen jasogailu txiki bat ipin dezaten eskatzen jarraitzen dute. Geltokiaren sarrera horren atzealdean ipin daiteke, gaur egun erabilerarik gabeko lorategi txiki bat dagoen lekuan.

Era berean, bizilagunak kexu dira Santa Barbarako eta Larratxo pasealekuko sarreretara iristeko 15-20 zentimetroko eskailera maila bat dagoelako, irisgarritasun unibertsala eragozten duena eta mugikortasun arazoren bat duten bizilagunei beste zailtasun bat jartzen diena, geltokiko sartu-irtenaldietan laguntzeko eskudelik ez egoteaz gain.

Urrian, talde politiko honek ohartarazi zuen ekipamendu berri horrek hainbat gabezia dituela, eta Udalbatzak ekimen bat onartu zuen, besteak beste, Eusko Jaurlaritzari hertsatuki eskatzen ziona berriz azter zezala geltokiko sarreren diseinua.

Azken batzordean, ordea, zinegotzi ordezkariak,

de Altza han puesto de manifiesto la existencia de una serie de situaciones muy mejorables, en relación a la accesibilidad a este equipamiento. A instancias de este Grupo político, varias han sido las iniciativas presentadas para mejorar lo actualmente existente, y para garantizar la accesibilidad universal en los equipamientos que vayan a construirse en la ciudad, a futuro, para que no pase lo que ha sucedido en Altza.

Siguen los vecinos quejándose de que la actual estación no garantiza la accesibilidad universal, pese a existir un ascensor que da servicio a las dos bocas de la estación.

Por ejemplo, en el caso de la boca que da a Santa Bárbara, número 4 -la más utilizada-, los vecinos siguen pidiendo unas escaleras mecánicas que les lleven hasta la superficie o, en su defecto, un pequeño elevador que cumpla esta función, que bien podría habilitarse en la trasera de esta boca de entrada a la estación donde, actualmente, existe un pequeño jardín sin uso alguno.

Se quejan, asimismo, los vecinos que, para acceder a las bocas de entrada (Santa Bárbara y Paseo de Larratxo), existe un peldaño o escalón de 15 o 20 centímetros de altura, lo que impide la accesibilidad universal y es una dificultad añadida para aquellos vecinos con algún problema de movilidad que, además, al entrar o salir de la estación, echan de menos un pasamanos donde poder agarrarse.

El mes de octubre, este Grupo político ya advirtió de las deficiencias presentadas en este equipamiento, de nueva construcción, y el Pleno aprobó (también con los votos del Equipo de Gobierno), una iniciativa en la que se instaba, entre otras cosas, al Gobierno Vasco, a reconsiderar el diseño de las bocas de acceso a la estación.

Lejos de continuar en la exigencia de mejoras para

donostiarrentzat hobekuntzak eskatzen jarraitu beharrean, soil-soilik esan zuen eskumen horiek ez direla Udalarenak eta ezin dela askoz gehiago egin, Eusko Jaurlaritzari horren berri emateaz gain.

Uste dugu Altzako herritarrek Donostiako gainerako herritarrei ematen zaien tratu bera merezi dutela eta ekipamendu hori hobetu daitekeela eta hobetu egin behar dela. Hori dela eta, hauxe da talde popularrak aurkezten duen MOZIOA:

Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta gobernu taldeari inplika daitezela Altzako topo geltokia hobetzeko eta agindu ditzatela Altzako topoaren sarrerak, irisgarritasuna eta hango erabiltzaileei eragiten dieten bestelako baldintzak hobetzeko beharrezkoak diren lanak.

Donostia, 2017ko martxoaren 24a

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea".

los ciudadanos donostiarras, la Concejal Delegada, en la última Comisión, se limitó a decir que las competencias son ajenas a este Ayuntamiento, y que poco más se puede hacer, además de dar cuenta al Gobierno Vasco.

Como entendemos que los ciudadanos de Altza merecen un tratamiento como el resto de los ciudadanos de San Sebastián, y porque se puede y se debe mejorar este equipamiento, es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que se impliquen en la mejora de la estación del Topo de Altza, encargando los trabajos necesarios para la mejora de las bocas de acceso, la accesibilidad y otras circunstancias que afectan a los usuarios del Topo en Altza.

En Donostia/ San Sebastián, a  24 de Marzo de 2017

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular".

Eztabaida hasita, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Axier Jaka Goikoetxea jaunak, Pilar Arana Perez andreak, Loïc Alejandro jaunak eta Ernesto Gasco Gonzalo jaunak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Jose María Murguiondo Casal, D. Axier Jaka Goikoetxea, Dª. Pilar Arana Pérez, D. Loïc Alejandro y D. Ernesto Gasco Gonzalo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 – (6) EH BILDU, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

---------------

**II.2.22. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, Gune Publikoaren erabilerari buruzko Ordenantzaren ingurukoa.**

“Miren Albistur Garmendia Talde Popularreko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, MOZIO hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak), Gune Publikoaren erabilerari buruzko Ordenantzaren inguruan aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko apirilean, gure taldeak aurkeztutako kontrol mozio bat onartu zen aho batez. Bertan, hertsatuki eskatzen zitzaien “alkateari eta Gobernu Taldeari (…) Udalak, zentzuzko denbora tarte batean, gune publikoa okupatzea osorik arautuko duen ordenantza bat izateko behar diren baliabideak abian jartzeko.

Zinegotzi ordezkariak erantzun zigun aste batzuen buruan aurkeztuko zutela Ordenantza. 39/2015 Legea indarrean sartu zenetik, beharrezkoa da, arauak egin edo aldatu baino lehen, arauak erasan ahal izango dien herritarrei eta erakunde esanguratsuenei iritzia eskatzea.

Hori dela eta, PP taldeak honako MOZIOA aurkezten du:

LEHENENGOA: Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gobernu Taldeari “Gune Publikoa Antolatzeko Ordenatza” ahalik eta lasterren kontsultara aurkezteko, aldez aurreko

**II.2.22. Moción de control presentada por el Grupo PP sobre la Ordenanza de uso del Espacio Público.**

“Miren Albistur Garmendia, portavoz del grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCIÓN a consecuencia de la Interpelación presentada en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre la Ordenanza de uso del Espacio Público.

